

“AEBko ELEBERRIA” ATALARI GEHIGARRIA:

**EMAKUME
ARRAZIALIZATUEN
LITERATURA
XX. eta XXI. mendeetan**

Matxalen Antxustegi-Etxarte Aranaga

2019-2020

Aurkibidea:

Eleberri Estatubatuarra XX.-XXI. mendeetan.

Ikaslearentzako materiala:	4-44
1. Aukezpena:	5
2. AEBko egoera politikoa eta ekonomikoa:	5
3. AEBko egoera kulturala:	7
3.1. Eskubide zibilen aldeko mugimendua	
3.2. Emakumeek idatzitako literatura	
4. Literatura natibo amerikarra:	11
4.1. Testuingurua:	
4.1.1. Natibo amerikarrak Ameriketako Estatu Batuetan	
4.1.2. 60ko hamarkada AEBn	
4.1.3. Natibo amerikarren loraldia	
4.2. Louise Erdrich:	
4.2.1. Literatura lana	
4.2.2. Maitasun-sendagaia	
4.2.3. Uso-izurritea	
4.2.4. Maitasun-sendagaia: "Munduko arrantzalerik onena"	
5. Literatura txikanoa:	23
5.1. Testuingurua:	
5.1.1. Ameriketako Estatu Batuen eta Mexikoren arteko muga	
5.1.2. 60ko hamarkada AEBn	
5.1.3. Txikanoak	
5.1.4. Txikano feministak	
5.2. Sandra Cisneros:	
5.2.1. Literatura lana	
5.2.2. Etxea Mango Street-en	
5.2.3. Etxe bat norberarena	
5.2.4. Karamelua	
6. Literatura afro-amerikarra:	33
6.1. Testuingurua:	
6.1.1. Esklabotza Ameriketako Estatu Batuetan	

- 6.1.2. 60ko hamarkada Ameriketako Estatu Batuetan
- 6.1.3. Arte beltzaren mugimendua
- 6.1.4. Afro-amerikar feministak
- 6.2. Toni Morrison:
 - 6.2.1. Literatura ana
 - 6.2.2. Maitasuna
 - 6.2.3. Maitea
 - 6.2.4. Sula

Eleberri Estatubatuarra XX.-XXI. mendeetan.

Irakaslearentzako materiala:45-77
1. Aurkezpena:	46
1.1. Louise Erdrich		
1.2. Sandra Cisneros		
1.3. Toni Morrison		
2. Literatura natibo merikarra:	52
3. Literatura txikanoa:	61
4. Literatura afro-amerikarra:	69
Bibliografia:	78
Webgrafia:	80

Eleberri estatubatuarra XX.-XXI. mendeetan

IKASLEARENTZAKO IKASMATERIALA

Eleberri estatubatuarra

1. Aurkezpena

Unitate honen helburua da AEBko zenbait emakume idazle eta haien lanak ezagutaraztea. Zehatzago esanda, material honetan idazle natibo amerikar bat, txikano bat, eta afro-amerikar bat ezagutuko dituzu. Hurrenez hurren, hiru emakume hauen bizitza eta lanak ikasiko dituzu: **Louise Erdrich** (1954-), **Sandra Cisneros** (1954-) eta **Toni Morrison** (1931-2019). Unitate honek Literatura Unibertsala ikasgaiko ohiko materialetan dagoen gabezia jakin bat gainditu nahi du, hau da, generoarekin eta arrazarekin lotutakoa gabezia.



Louise Erdrich ©



Sandra Cisneros ©



Toni Morrison ©

2. AEBko egoera politikoa eta ekonomikoa¹:

XX. mendeak oparotasun eta nagusitasun politikoa, ekonomikoa eta kulturala ekarri zuen AEBra. Lehen Mundu Gerran (1914-1918) borrokatzeak aliatuen aldeko ekintzetan parte hartzeko aukera eman zion AEBri. Parte hartze horrek abantaila ugari ekarri zizkion maila ekonomikoan zein ideologikoan. Batetik, industria astunaren eta nekazaritzaren merkatuak sendotu zituen. Bestetik, nazio handia izatearen kontzientzia ere indartu egin zen. Oparotasun urteak izan ziren, beraz, eta AEB **munduko lehen potentzia ekonomikoa** bihurtu zen. Hala ere, aberastasun horrek **pentsaera biziki kontserbadorea** ere ekarri zuen.

XX. mendeko aberastasuna ez zen
AEBko hiritar guztien artean berdin

¹ Atal honetako edukia Anayaren *Literatura Universal* ikasliburutik atera da.

banatu. Gizartean ezberdintasunak areagotu egin ziren aberastasun handiak metatu zituztenen eta pobrezia gorrian bizirauten zutenen artean. Muturreko bizi-baldintza horiek soldaten arteko desorekaren ondorioa izan ziren. Industriaren alorrekoak izan ziren irabazi altuenak lortu zituzten langileak eta nekazaritzaren alorrean zebiltzanak izan ziren txiroenak.



Ama migrantea. Dorothea Lange ©

20ko hamarkadaren amaieran, **1929ko krisia** iritsi zen. **Ekonomiaren beherakada gogorra** ekarri zuen horrek. Krisia gainditzeko, Franklin D. Roosevelt presidente demokratik *New Deal* (1933-1945) politika ezarri zuen. Politika horrek aitortu egin zuen ondasun banaketa desorekatuaren ondorioz iritsi zela krisia.

1941ean Bigarren Mundu Gerran ere hartu zuen parte AEBk. Hasiera batean zeharkako parte-hartzea izan zuen. Baina, 1941ean japoniarrek Pearl Harbour eraso ondoren, izugarri indartu zuen partaidetza AEBk eta gerra bukatzean irailaren 2an sinatu zen menia. Hilabete lehenago jaurti zituen AEBk bonba atomikoak, Hiroshiman eta Nagasakin. Gerraren amaierak argi utzi zuen nortzuk ziren galtzaileak, eta baita garaileen artean bi **bloke** zeudela ere. Batetik, SESB (Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna) eta Varsoviako Ituna buru zituen bloke sozialista zegoen. Bestetik, AEBk buru zuen NATO (Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea) aliantza militarra zegoen. Bloke biak "burdinazko hesia" zeritzon muga politiko-ideologiarekin bereizita zeuden.

Bigarren Mundu Gerra bukatu ondoren, bi blokeon arteko liskarrak hasi ziren. Gerra Hotza izenarekin egin zen ezaguna bloke bi horien ezinikusia. Liskar politikoari AEBk proposatutako **Marshall Plana** gehitu behar zaio. Plan horren helburua zen laguntza ekonomikoak eskaintzea gerraren ondorioz kalteturik

geratutako herrialde europarrei. Laguntza horiek herriak berreraikitzea ahalbidetuko zuten eta, aldi berean, bloke komunistaren eragina oztopatzea. AEBn bertan, bestalde, MacCarthy senataria buru zuen korronte antikomunista bortitza sortu zen. Korronte horri **macartismoa** deitu zitzaion, eta AEBren eta SESBen arteko etsaitasun sakonaren adierazgarri da.

1953an hil zen Stalin SESBen, eta 1960an AEBko presidente aukeratu zuten J. F. Kennedy gaztea. Europako herrialde garrantzitsuenetan ere, lidergo politiko berriak ezarri ziren garai berean. Aldaketa horiek erraztu zuten bi blokeen arteko etsaitasuna ahultzea **bizikidetza baketsua lortzeko**.



Iósif Stalin (1878-1953) ©



J.F.Kennedy (1917-1963) ©

3. AEBko egoera kulturala:²

3.1. Eskubide zibilen aldeko mugimendua

1960ko hamarkadan, hainbat faktorek lortu zuten AEBko historian arraza zuriz besteko hiritarrek sufritutako zapalkuntza geldiaraztea, behintzat, neurri batean. Faktore nagusietako bat izan zen **mugimendu beltzaren aktibismoak** beste komunitate kulturalak ere borrokatzera bultzatu zituela. Izan ere, bizimodua guztiz mugatzen zuten **baldintza sozioekonomiko eta politiko latzak** antzerakoak ziren natibo amerikarren, txikanoen eta afro-amerikarren artean.

² Atal honetako edukia *La Frontera, Borders and Transborders* doktore-tesitik atera da.

Testuinguru horretan, oinarri kulturala zuten mugimendu politikoak indarberritu egin ziren 60ko hamarkadan. Aktibismo politiko horrekin, zegozkien eskubideak aldarrikatu zituzten natibo amerikarrek, txikanoek eta afro-amerikarrek.



Hezkuntza bereizkeriaren alde ©



Bereizkeriaren kontra Selma-n ©

60ko hamarkada baino lehenago ere, natibo amerikarrak, txikanoak eta afro-amerikarrak eragile politikoak izan ziren. Hala ere, hamarkada horretan eragile horiek **zehaztuko** zituzten ekintzek jarraitu beharreko **programa politikoak**. Egitarauok arrazaren, klasearen eta posizio ekonomikoaren arabera bazerketa salatzen zuten. Salaketak, gainera, komunitate bakoitzaren ondare kulturalari arreta berezia eskainiz antolatu ziren. Beraz, **aktibismo politikoek berreskuratze kulturalarekin** bat egiteak arraza zuriz besteko komunitateen batasuna eta indarra izugarri haztea eragin zuen.

Natibo amerikarren eta **txikanoen** mugimenduek eskubide zibilen aldeko mugimenduarekin bat egin zuten (garai hartan **afro-amerikarrena zen mugimenduarekin**). Mugimendu horiekin batera, beste mugimendu batzuek ere indar handia lortu zuten garai hartan, eta denek jartzen zuten zalantzan AEBko **nagusikeria-sistema**: batez ere emakume zuriz osatuta zegoen **mugimendu feminista** eta **unibertsitateko ekintzailez osatutako Vietnamgo gerraren kontrako mugimenduak** dira askotariko mugimenduen artean bi adibide esanguratsu. Mugimendu horiek guztiak bilatzen zuten AEBko politika- eta ekonomia-egiturak zalantzan jartzea, eta inoiz ez bezala elkartu zituzten arraza eta klase ezberdinetako hiritarrak.



Mugimenduaren txikanoaren ikurra ©



Natibo amerikarren mugimenduaren bandera ©

Natibo amerikarrez, txikanoez eta afro-amerikarrez osatutako mugimendu politikoak **historia eta kultura berreskuratzeko nahiak** bultzatzen zituen. Kultura eta politika uztartzen zituzten, anglosaxoien nagusitasuna salatu eta desfaiatzeko. Ekintzaileek uste zuten talde kultural gisa borrokatzeak lagunduko ziela AEBko historian bizitako **iragan latza gainditzeko**. Argi zuten iragana nolabait gainditu, eta orainaldiko **borroka politikoetan parte hartzeak** bakarrik ahalbidetuko ziela **etorkizun bidezkoago** bat eraikitzea.

Historia eta kultura berreskuratzeko **harro** sentiarazten zituen eguneroko bazterkeria jasaten zuten AEBko arraza zuriz besteko hiritarrak. Kultura, historia eta hizkuntza bera berreskuratzeko ekintza politiko horrek **talde bakarreko partaide** egiten zituzten. Ondorioz, komunitate natibo amerikoar, txikano eta afro-amerikarrek gogor aritu ziren AEBko nagusikeria-narrazioak isilarazitako eta suntsitutako ondarea talde-lanean berreskuratzen. Arraza zuriz besteko hiritarrak izateagatik AEBko historian jasandako gehiegikeriak ere etengabe salatu zituzten.

3.2. Emakumeek idatzitako literatura

Natibo amerikoar, txikano eta afro-amerikoarren **komunitateetan**, hala ere, **deserosotasuna** nabaritzen hasi zen. AEBko egitura politikoaren eta ekonomikoaren oinarrian arrazakeria zegoen bezala, bazegoen komunitateko

partaideak elkarrengandik bereizten zituen beste bazterkeria mota bat ere: generoarekin loturiko bazterkeria. Goian aipatutako **mugimendu politikoetan** bizirik irauten zuten genero-rol tradizionalak, eta horiek zalantzan jartzen hasi ziren ekintzaile feministak. Horretarako, aktibismo politikoaren inguruan izandako eguneroko bizipenak erabili zituzten. **Komunitateek definitutako emakume eredugarriaren** irudiak ez zien erantzuten emakume gisa bizitako **menpeko rolei**. Irudi eredugarriaren eta bizitako menpeko rolen arteko aldea gaindiezina zela argudiatu zuen mugimendu feministak.

Feminista natibo amerikar, txikano eta afro-amerikar batzuek atzean utzi zituzten beren komunitate kulturalak. Beste batzuk, aldiz, arraza- eta genero-bazterkeria uztartuko zituen ikuspegi politikoa aurkitzen saiatu ziren. Edonola ere, generoan oinarritutako bazterkeria salatzeak **aktibismo politikoaren aurkako erasotzat** jo zuten komunitateko kide askok. Horregatik, gizon ugari ez ezik, emakume batzuek ere aktibista feministak baztertu egin zituzten, komunitatearentzat mehatxua zirelakoan. Beraz, batzuek arraza zuriz besteko feministak **aktibismo** politiko eta **kulturalaren traidore** bihurtu zituzten, eta baita feminista zuriekin bat egiteagatik gutxietsi ere.

Komunitate kulturaletako gizon eta emakumeen hasierako gaitzespena sufritu bazuten ere, feministek lanean jarraitu zuten genero-kontzientzia pizteko helburuarekin. **Egunerokotasunean** gehiegi **nabarmendu gabe** ere, generoarekin lotutako hainbat **arazo identifikatu eta salatu** zituzten. Feministek biziki interesatzen zitzaien **hezkuntzak, tradizioak eta erlijioak egitura zapaltzaile** bezala izan duten rola AEBko historian zehar.

Aktibista feminista horien artean, hainbat **idazle natibo amerikar, txikano eta afro-amerikar** daude. Idazle feministok idatzitako narrazioek **berrikuntza interesgarriak** ekarri zituzten literaturaren mundura. Idatzi zituzten lanek bestelako **gai** eta **pertsonaiak** islatzen dituzte, baita **genero** berritzaileak jorratu ere. Unitate honetan landutako hiru idazleek eta haien lanek ohiko ikasmaterialek lantzen duten ikuspuntua gainditu egiten dute. Aldi berean, literatura-lan horiek

genero- eta arraza-berdintasunaren alde lan egiteko aukera ekarriko dute gure ikasgelara.

Taula honetan **laburbiltzen** dira **literatura feminista natibo amerikar, txikano eta afro-amerikarrak** ekarritako **berrikuntza** garrantzitsu batzuk:

✚ Ahozkotasunean eta kultura etnikoan oinarritzen diren narrazio laburrak eta biziak idazten dituzte.
✚ Arlo publikoan zein pribatuan gizonek eta emakumeek dituzten rolak aztertzen dituzte.
✚ Gizonezkoak nagusi diren munduari kritika egiten diote.
✚ Emakumezkoek tradizioz izan dituzten rolak gainditzea bilatzen dute, emakumeen independentzia eta berdintasuna lortzeko.
✚ Egunerokotasuna aktibismo politiko bihurtzen dute.
✚ Bigarren mailako literatura- generoak hobesten dituzte: istorioak eta narrazio poetikoak, besteak beste.
✚ Etxea eta komunitatea literatura-lan ugariren gune bihurtzen dituzte gizartean sufritutako zapalkuntza adierazteko.
✚ Hizkuntza molde ofizialetik urruntzen den hizkera kulturala erabiltzen dute.

4. Literatura natibo amerikarra

4.1. Testuingurua

4.1.1. Natibo amerikarrak Ameriketako Estatu Batuetan

Natibo amerikarrek gaur egungo gizartean sufritzen duten egoera ulertzeko, europarren eta natibo amerikarren arteko gatazka aztertu behar da. Gatazka horrek abiapuntu argi bat du: lurraren jabetza. Natibo amerikarren eta europarren arteko historia odoltsua hiru gertaera giltzarritan laburbilduko dugu unitate honetan. Hiru gertaerak lurraren jabetzari eta desjabetzeari daude lotuta: **Natibo Amerikarrak Kanporatzeko Legea** (*Indian Removal Act*), natibo amerikarrei zuzendutako **barnetegi-sistema**, eta **Ezabatze Politika** (*Termination Policy*).

Beste askoren artean, aipatutako legedi horiek ziurtatu dute natibo amerikarren ikusezintasuna.

Natibo Amerikarrak Kanporatzeko Legea Andrew Jackson presidenteak sinatu zuen 1830eko maiatzaren 28an. Lege horren bitartez, Jacksonek truke bat inposatu zien natibo amerikarrei. Estatu-mugen barnean zituzten lurren trukean, natibo amerikarrei biztanlerik gabeko lurralde eremuak eman zizkien Jacksonek Mississippiko mendebaldean. Tribu batzuek lur-truke horri amore eman bazioten ere, beste askok aurre egin zioten. Hala ere, historiak erakutsi bezala, liskar horiek arrakasta gutxi izan zuten natibo amerikarrentzat.

Natibo amerikarrei zuzendutako **barnetegi sistema** 1860an hasi zen. Barnetegiok Herbert Welsh-en eta Henry Pancoast-en asimilazio-planaren parte izan ziren. Hezkuntzaren bitartez, natibo amerikarrak “amerikar bizimodura” moldatzea zen barnetegiaren helburua. Izan ere, Welshentzat eta Pancoastentzat beharrezkoa zen natibo amerikarrak “zibilizatzea”; hau da, zuriaren sinesmenak eta kultura bereganatzea eta berezko balitz bezala onartzea. Aldi berean, eskola horien lehentasuna zen natibo amerikarrek beren hizkuntzak alde batera uztea eta ingelesa ikaslaraztea. Barnetegi-sistema horren ondorioz, haur natibo amerikarrek bortxaz galdu zuten etxeko eta komunitateko eragin kulturala.



Carlisle barnetegiko ikasleak 1881 ©



Carlisle mutilen eskolako ikasleak 1879 ©

Hasiera batean 1953ko **Ezabatze Politika** 1943an abiatutako programen ondorio izan zen. 1943an hasi ziren behaketak egiten natibo amerikarren erreserbetan. Behaketa horietan jasotakoei erantzuteko hasi zuten Ezabatze Politika,

behaketek natibo amerikarrek bizi zuten pobrezia eta miseria azalerazi baitzituzten. AEBko gobernuak Ezabatze Politikaren bitartez erabaki zuen arazo hori gainditzeko natibo amerikarrak taldean ez ezik, norbanako gisa ere asimilatzea. Beste hitz batzuetan esanda, gobernuak uste zuen natibo amerikarren zapalkuntza egoera erreserbetan geratzearen ondorio zela.

Ezabatze Politikarekin erreserbetatik irten eta oraindik zapalkuntza-egoeran egonik ere, AEBko gizabanako zuriekin parekatzera behartu zitzairen natibo amerikarrei. Politika horrek natibo amerikarrei zor zitzaizkien eskubideak ematea helburu bazuen ere, tribuek burujabetasuna eta askatasuna galtzea eta estatu-legeetatik baztertzea ekarri zuen. Laburbilduz, bizimodu hiritarrera jaurti zituzten natibo amerikarrak. Ezagutzen zuten erreserbako bizimodutik guztiz aldendu zituzten eta hirietan bizirautera bultzatu.

4.1.2. 60ko hamarkada AEBn

Zapalkuntza egoeraren aurrean eta 60ko hamarkadako giza eskubideen aldeko mugimenduak adoretuta, natibo amerikarrek eskubideen aldeko protestak egin zituzten. Protesta horietan zuriz besteko beste hainbat komunitarekin sortu zituzten aliantzak.

Ekintza politikoen artean agian ikusgarriena **Alcatraz uhartea** okupatu zutenekoa izan zen. 1969ko azarotik 1971ko ekainera luzatu zen ekintza politiko eta baketsu hura. Beste batzuen artean, bi kolektibok hartu zuten parte Alcatrazko ekintzan: Natibo amerikarren mugimendua (*American Indian Movement*) eta Tribu guztietako natibo amerikarrak (*Indians of All Tribes*). Okupazioa unibertitate-ikasle gutxi batzuek hasi bazuten ere, egunak aurrera egin ahala, familia osoak elkartu zitzaizkien. Ekintza politiko hori gerora natibo amerikarrek egingo zituzten beste protesten sorburu gisa hartu izan da, eta natibo amerikarren **literaturaren loraldiarekin** ere egin zuen bat.



Alcatrazko irlaren okupazioa ©

4.1.3. Natibo amerikarren loraldia

XX. mende hasieran natibo amerikarrek askotariko ekarpenak egin zituzten generoan eta bestelako eremu batzuetan. Hala ere, 60ko hamarkadaren bukaeran eta 70ko hamarkadan zehar kokatzen dute adituek natibo amerikarren literaturaren goraldia. Goraldi horri natibo amerikarren loraldia deritzo.

Loraldi terminoa **Kenneth Lincoln** kritikariak erabili zuen lehenengoz 1983an bere *Native American Renaissance* liburuan. Orduetik hona, terminoak batzuetan eztabaida eragin izan du. Hala ere, 60ko hamarkadan natibo amerikarren lumek sortutako literatura-corpus aberatsari buruz hitz egiteko erabiltzen da askotan.

1969an, **Navarre Scott Momaday** natibo amerikarrak idatzitako *House Made of Dawn* (*Egunsentizko etxea*) lanari Pulitzer saria eman zioten. Momadayk halako sari entzutetsua jasotzeak aukera paregabea eskaini zien sasoi hartan idazten ari ziren natibo amerikarrei. Izan ere, AEBko irakurleak gehixeago ireki zitzaizkien oraindik hain ezezaguna eta arrotza iruditzen zitzairen natibo amerikarren ahotsari. N. Scott Momadayrekin batera beste idazle natibo amerikar entzutetsu batzuk dira honako hauek: **Paula Gunn Allen**, **Louise Erdrich**, **Leslie Marmon Silko** eta **Simon J. Ortiz**.

Idazle natibo amerikarrak historia, kultura eta hizkuntza propioa berreskuratzen saiatu dira literatura-lanetan. AEBko gizarteak mutututa izan dituztenek garrasia bihurtu dute literatura. Batzuek istorio, mito eta sineskeren **tradizioan** oinarritutako lanak sortu dituzte; bilatzen dute ondorengoek natibo amerikarren

kulturaren aztarna aurkitzea liburutegietako apaletan. Beste batzuek nahiago izan dute erreserba barruan zein inguruetan bizitako **errealitatea** deskribatu eta salatu. Bukatzeko, badaude egungo AEBko gizartean **identitate natibo amerikarra** edo identitate mestizoa zer den hausnartzeko eremua literaturan aurkitu dutenak ere.

4.2. Louise Erdrich

Louise Erdrich Little Falls-en (Minnesota) jaio zen, 1954an. Ama Chippewa zen eta aita alemaniar-amerikarra, eta biak izan ziren irakasle Natibo amerikarren gaien departamenduak (*Bureau of Indian Affairs*) zuzendutako eskola batean. 1972tik 1976ra Erdrichek ingeles-filologia ikasi zuen Dartmouth unibertsitatean. Erdrichek parte hartu zuen, adibidez, unibertsitate horrek lehenengoz onartutako emakume-ikasleen taldean. Lehenengo urte horretan, gainera, natibo amerikarren ikasketen departamentua sortu zen. 1979an, sormenezko idazketa-masterrean ikasle sartzeari lortu zuen Baltimore-ko (Maryland) John Hopkins unibertsitateko arte ederren fakultatean. Geroago, master horretan idatzitako poema eta istorio batzuk argitaratuko zituen Erdrichek.

Ikasketak bukatzean, Bostoneko Indiar kontseiluaren *Circle (Zirkulua)* izeneko egunkariaren editore aritu zen Erdrich. Elkarrizketa batean aipatu zuenez, ikuspuntu berri bat eman zion lan horrek. Erdrichek bizitako esperientzietatik urruntzen zen hiri komunitate batekin egin zuen topo eta askotariko arazoak zituen jende asko ezagutu zuen. Orduantxe konturatu omen zen hura ere bazela komunitatearen atal bat eta horri buruz idatzi nahi zuela.

Ipar Dakotako *Turtle Mountain Band of Chipewa* erreserba indiarrean idazleentzako tailerretan antolatzaile gisa aritu dira Louise Erdrich eta bere bi ahizpa. Gainera, Erdrich eta bere ahizpa Elise-k *Birchbark Books* izeneko liburudenda independentea ireki zuten. Liburudenda natibo amerikarren literaturan espezializatzen da oraindik ere gaur egun ere.

4.2.1. Literatura-lana

Sortze-iturria familia duela aitortu du Erdrichek sarritan. Aitak sendotu egin zuen Erdrichek berezkoa zuen ipuinak kontatzeko joera. Idatzitako istorio bakoitzarengatik zentimo bat ordaintzen zion aitak. Hainbat adineko irakurleentzat literatura-lanak sortzeko trebezia amari egozten dio Erdrichek, eta baita Lise ahizpa idazleari ere. Amak egindako bidaiak beste inspiratu du birraitonarenak. Ojibwetarren azken bufalo ehiztaria izan zen aitona.

Eleberriek eman diote Erdrichi duen ospea. Idatzitako dozena pasa eleberriek sari ugari jaso dituzte eta AEBko egunkari entzutetsuen bestseller-zerrendetan ere egon dira sarri. Hala ere, garrantzitsua da Erdrichek onartu ez zuen saria aipatzea; izan ere, 2007an Ipar Dakotako unibertsitateak Honoris causa doktoretitulua eskaini bazion ere, idazleak uko egin zion. Unibertsitate horretako kiroltaldeak errespeturik gabe erabili zuen sioux borrokalari baten irudia ekipoaren ezizenerako eta logotiporako. Polemika askoren ondoren, 2015ean, sioux borrokalaria kendu eta belatz borrokalaria jarri zuen unibertsitateak.

Erdrichek elkarrekin lotura duten eleberri- eta istorio-segida idatzi du. Lan horietan, Ipar Dakotako parajea bihurtzen da istorioen gune nagusia behin eta berriro. Erdrichen arbasoek elkar ezagutu zuten eta nahasi egin ziren tokia da idazleak aukeratutako paisaia, eta anglosaxoi iparramerikarren tradizioan irudikatzen du chippewa esperientzia. Erdrichen eleberri batzuek elkarrekin loturik dauden hiru familiaren bizitzak biltzen dituzte. Familien arteko lotura hori Ipar Dakotako fikziozko Argus herrian eta erreserban gertatzen da 1912tik gaur egunera arte. Eleberri horiek William Faulkner-en lanekin konparatu izan dira erabilitako ahots ugariko kontakizunagatik eta baita kronologikoki antolaturik ez dauden kontaera-segidengatik ere.

Louise Erdrichen obrak hauexek dira:

- Eleberriak: ***Love Medicine*** (*Maitasun sendagaia*, HarperCollins, 1984), ***The Beet Queen*** (*Erremolatxa erregina*, HarperCollins, 1986), ***Tracks*** (*Ibilbideak*, HarperCollins, 1988), ***The Bingo Palace*** (*Bingo jauregia*, HarperCollins, 1994), ***The Last Report on the Miracles at Little No Horse*** (*Little No Horse-ko mirarien azken kontakizuna*, Harper


Perennial, 1999), **Four Souls** (*Lau arima*, Harper Perennial, 2004) eta **The Plague of Doves** (*Uso-izurritea*, Harper Perennial, 2008), besteak beste. Azken eleberriak: **LaRose** (*LaRose*, HarperCollins, 2016) eta **Future Home of the Living God** (*Jainko biziaren etorkizuneko etxebizitza*, HarperCollins, 2017).

- Hiru poema liburu ditu: **Jacklight** (*Lanterna*, Holt Paperbacks, 1984), **Baptism of Desire** (*Desioaren bataioa*, Harper Perennial, 1990) eta **Original Fire, New and Selected Poems** (*Jatorrizko sua, poema berri eta hautatuak*; Harper Perennial, 2003).
- Baita istorioen bilduma bat ere: **Red Convertible: Collected and New Stories** (*Kabriolet gorria: hautatutako istorioak eta istorio berriak*, Harper, 2009).
- Haurrentzako eleberri-segida hau du: **The Birchbark House** (*Urkizko etxea*, Hyperion, 1999), **The Game of Silence** (*Isiltasunaren jokoak*, HarperCollins, 2005), **The Porcupine year** (*Arantzurdearen urtea*, HarperCollins, 2008), **Chickadee** (*Kaskabeltza*, HarperCollins, 2012) eta **Makoons** (*Hartz kumea*, HarperCollins, 2016). Liburu horiek Laura Ingalls Wilder idazleak idatziriko *Little House on the Prairie* (*Zelaian dagoen etxe txikia*) segidak arrazakeriak eragindako frustrazioak bultzatuta sortutakoak omen dira.
- Bukatzeko, fikziozkoak ez diren lanak dira: **Imagination** (*Irudimena*, Merril, 1982), **Route Two** (*Bigarren ibilbidea*, Lord John Pr., 1990), **The Blue Jay's Dance** (*Eskilaso urdinaren dantza*, HarperCollins, 1995), besteak beste.

Jarraian, esku-artearen dituzun pasarte hauek aztertuko ditugu.

MAITASUN SENDAGAI

[...] Hasteko batera baliorik gabeko lurra **eman zizuten**, eta, gero, lur hura txikituta, oinaz azpitik kendu. Haurrak gramatik zizkituz eta ingelesez hizkuntzaz **okitu** haien ahoak. Anaiak infernura bidali zituzten, eta errerata bueltan bidali. Berriz truketan **alkohola** saldu zituzten, eta gero, ez edateko esan. Berriz garaia, berriz zuten garaia indiarrek eratu eta zuzentzen indar bakarra erabiltzen hasteko: legegintza federala. Lyman-ek irribarre egin zuen berarekin kolokarako, berriz altxatuta, lurra berrizatu. Urrunera erreberritu zuen, hautsez berriz aireratu bisioa jasoa eta irmoa egin zuten arte. Bingo! Bingo! Ez hori bakarrik, erreberritu aurrera. Saiatu **kasino**ekin, saiatu zoriaren monolitoekin. [...] Denak zirudien posible eta, arare gehiago, historiaren **ironia** txiki horietako bat zuten. Prestakuntza-programa propioa hasiko zuten. Institututik aterata berriak izango zirenen langileak, eta Chippewaen moduzuzenak, moduz egokiak, hezibide onerako erakutsiko zituzten, erretiroa hartutako jende zuriari dirua kentzeko. Indiarren giza-lurra landu zituzten haien, indiarren lanetan aritutako, auzokideak txirotu haren aberrak zuzentzeko. Bai, goserak hiltzen zuzentzen, galdutakoak, sorbalda gaineratik berrizatu edo ikusi erreberritu ez zituzten dirua kentzeko. [...]




ARIKETAK:

- Narratzaileari buruz zer informazio jaso dezakegu? Narratzailearen sentimenduek zer ibilbide egiten dute pasartean zehar? Azaldu.
- Zergatik dira esanguratsuak letra lodiz idatzirik dauden hitzak? Berrirakurri testua arretaz eta azaldu, banan-banan, hitzek hartzen dituzten konnotazioak.

- c. Bilatu testuan aipatzen den lege federalak nolako garrantzia duen natibo amerkarren erreserbak kudeatzeko, eta bildu gaur egungo adibideak.
- d. Irakurri berri duzun natibo amerkarrei buruzko teoria kontuan harturik, zergatik da pasarte hau literatura natibo amerikarraren adibidea? Argudiatu zure erantzuna eta oinarritu testuko adibideetan.

USO-IZURRITEA

Errukirik gabeko gutxitzen doan herria orain begiratzean, harritzekoa da hura eraikitzean jendea hil egin zela. Berdina gertatzen da etsi-etsian, lurraren gainean ezartzen ditugun mugekin zerikusia duten zeregin guztiekin. Uste dugu lerro bat marraztean eta defendatzean zerbait menderatu egin dugula. Zer baina? Lurrak ireratsi eta xurgatu egiten ditu herrialde bat edo erreserba bat egituratzea lortzen duten horiek ere. Hala ere, badago zerbait lurrarekiko maitasunean eta ezagutzean, eta horrek ametsekin duen erlazioan; gure arbasoek zuten zerbait da hori. Horregatik existitzen gara tribu bezala oraindik ere. Nire lana da tribu-lurretan tribu-legea indarrean dagozla ziurtatzea, baina hori egiten dudan bitartean, nire aititak lurraren gaixotasunari buruz zerabilen esaldia gogoratzen dut, “hiriaren sukarra”, eta nola egon zen haren sintoma okerrenak (diruzalckeriak) jota hiltzeko zorian.



Saiatu naiz Pluto-n bizitako kapitulu batzuk isilean gordetzen: nire maitasun-porrot luzea, adibidez, etxea txikitu zuen emakumearekin; gaztetako ihesaldi gutxi batzuk (barkagarriak gehienetan); eta ahozko akats negargarri bat hilobiak zulatzeraz gramen ninduzna luzaroan herriko kanposantuan, oraindik maite dudan tokian. Baina nire lehenengotariko legezko auzi batzuan, Pluton

gertatutako delitu batzen erruduna defendatu nuzen. Gertaera Corwin Peacengana ere desbiderratu zen. John Wildstran erruduna izan zen, eta Corwin-en aita ere bazen. Haren historia oso modu konplexuan korapilatzen zen gainontzeko familiarekin, aitatak Mooshum-en emaztea ere sorrarazia zuelako, baina nahiko da jadanik. Ez da hemen ezer gertatzen, *ezertxo ere ez*, odolarekin loturik ez dagoenik.

ARIKETAK:

- a. Pasarteak gizakiak lurrarekin duen erlazioa deskribatzen du. Nolakoa da erlazio hau? Zerekin dagoela loturik uste duzu, iraganarekin ala orainarekin? Argudiatu zure erantzuna, eta oinarritu testuko eta teoriako adibideetan.
- b. Bildu Louise Erdrichek irekitako *Birchbark Books* liburudendari buruzko informazioa eta azaldu nola bihur daitekeen literatura aktibismo politikorako tresna.
- c. Pasarteko azken esaldian aipatzen den “odola”k zeri egiten dio erreferentzia? Nolako garrantzia du terminoak pasartea ulertzeko eta baita natibo amerikarrek AEBko historian bizi izan duten egoera azaltzeko? Esanahi positiboa ala negatiboa duela uste duzu?

IRAKURKETA GIDATUA:

MAITASUN SENDAGAI

Munduko arrantzalari onenak (1981)

Pazko igandea aurreko goizean, jendez gainez zegoen kale nagusian zehar zihoan June Kaspaw; petrolioak abarastutako Williston, Ipar Dakotako hirian zehar; denbora-pasan etxera eramango zuen eguerdiko autobusa iritsi aurretik. Hanka luzeko chippewa emakumea zen June, mugitzeko gran izan ezik erabat zahartua zegoena. Seguruenik mugitzeko erak –zango gogor eta liraindun neska gaztearenak bezain arinak– harrapatu zuen Rigger tabernan zegoen gizonaren begirada, eta hatz koskorrekin leihoan joz daitu egin zion.

Ezaguna egin zitzaion. Hainbeste zituzen ikusita etorri eta joan. Gizonak besoa altxatu zuen eta sartzera gonbidatu, eta halaxe egin zuen Junek zalantza zantzurik gabek, gizonarekin trago bat edo bi bakarrik edango zituela pentsatuta, eta gero poltsak jaso eta autobusa hartuko zuela. Behintzat ea ezagutzen zuen jakin nahi zuen. Leihoa bustita egon arron, ikus zezaketen gizona ez zela hain zaharra –eta baita bularra ongi gordeta zekuala nylon gorri iluneko lumatzazko jaka garrestiarekin.

Kolorretako arrautza-kutzak zeduzen barra gainean, bakoitza zelofan mordoxkan bilduta, harribitxi bat bezala dirdirka. Junek tabernan sartzean, arrautza bat zuritzen zebilen gizona, txantxangorriren zeru urdin kolorekoa, esku-ahurraren barruan zerabilena atzamar lodiarekin zurituz. Eguna lainoturik egon arron, halako argiarekin islatzen zuen elurrak Junek itsutu egin zela unek batez. Ur-azpian sartzera bezalakoa zen. Esku zurian zegoen arrautza urdinak erakartzen zuen beste ezerk baino gehiago, itsasargia aire arron.

Gizonak garagardo bat eskatu zion, “Blue Ribbon” bat, egunetan ikusitako gauzarik onena izateagatik saria merezi zuela esan bitartean. Arrautza bat zuritu zion, arrosa koloreko bat, eta zeraman lepo luzeko jertsarekin ongi zihuala esan. Junek esan zion ez zela lepo luzeko jertsara. Gauza hori jertsaren azala esaten zaie. Nahi izanetz gero, hori ere zurituko ziola erantzun zion; gero, zerbitzariari irribarre egin, eta arrautza biluzia eskura eman zion Juneri. [...]

Are beranduago izan zen erabat hauskor sentitu zenezan. Komunera zihuala, ezereen kontra talka egiteko beldur zen, azala sentitzen zuelako gogor eta hauskor, eta bazekien egogera horretan posible zela ukiturik leunarekin ere bertan behera birrintzea. Bainugelari giltzapetu, eta gizonaren eskua gogoratu zuen, atzamar lodiaz azal gardena eta oskol urdina karraskatzen.

Atzura egiten zioten arropak. Izerdituta zeukan jertsq-azal arrosa eta besoak galtzarbetaraino zituen bilduta, baina ezin zuen King semzak emandako plastiko zurizko jaka kendu, azal arrosa hura sabelaldetan urratuta zeukan eta. Baina eserita zegoela, zerbait gertatu zen. Bat-batetan arropetatik eta azalzetik inoren laguntzarik gabe irristatzen ari zela zirudien. Eserita, aurrerantz makurtu eta bekokia jarri zuen komuneko papera eusten zuen metalazko gainaldean. Harren guztia azpian gorputza garbi eta biluzirik zuela sentitu zuen –azalak bakarrik ziren zurrun eta zahar. Gizon hura ezberdina ez bazen ere, biziraun egingo zuen berriro.

Eskuko poltsa zrori zitzaion, barrua hustuz. Zuzen eseri zen. Atzeren eskutokia biraka amildu zen irrekirik zegoen poltsatik eta komun-ontzi azpira joan zen. Aldetan gramen behar zuen eskutokia berez gela uzten zuen bakoitzean. Ez zegoen atz kolpatua giltzatzeko besterik modurik. Orain eskutokia jaso, eta metalazko kintanari gutsi zion. Eskutoki biribila portzelanazkoa zen, luza eta zuria. Harria bezain gogorra. Jakaren poltsiko sakonengan sartu, eta hari gutsi bitartean, tabernako txokora itzuli zen bildutako jendetza gurutzatuz. Berer logela giltzapetan zegoen. Eta orain prest zegoen gizon harantzat. [...]

Elurra hasi zenean ere Junek ez zuen norabidea galdu. Hankak sorgortu zitzaizkion, baina uruntasunak ez zuen arduratzen. Haietaz bortitzek ez zuten norabidetik baztertu. Jarraitu egin zuen. Bihotza gogortu zitzaionean ere eta azala hotzaren-hotzez apurkor egin zitzaionean ere ez zitzaion axola, harren alde garbi eta biluziak aurrera jarraitzen zuen eta.

Pazko hartan azken berrogei urteetan baino elur gehiago egin zuen, baina Junek elurraren gainean ibili zen uraren gainean bezala, eta etxera itzuli zen.

5. Literatura txikanoa

5.1. Testuingurua

5.1.1. Ameriketako Estatu Batuen eta Mexikoren arteko muga

1848an **Guadalupe-Hidalgo Ituna** sinatu zuten AEBko eta Mexikoko gobernuek. Itun horri esker AEB Mexikoko lurraldearen erdia baino gehiagoz jabetu zen, hau da, gaur egun ezagutzen ditugun Kalifornia, Nevada, Texas, Mexiko Berria, Colorado eta Arizona, Mexiko izatetik AEB izatera pasatu ziren. Ondorioz, itunak atzeritar egin zituen lurralde horietako jatorrizko hiritarrak eta bigarren mailako hiritar bihurtu zituen afro-amerikarrekin edo natibo amerikarrekin batera.

5.1.2. 60ko hamarkada AEBn

1960ko hamarkadan, afro-amerikarren **eskubide zibilen aldeko mugimenduak** arraza zuriz besteko iparramerikar guztien berdintasunaren alde egin zuen borrokan. Martin Luther King-ek eta Mugimenduak irekitako biderei jarraituz, jatorri ezberdinetako hispano-amerikarrek ere, eskubide berdintasunen aldeko borroka antolatu zuten. Borroka horri **Txikanoen eskubide zibilen aldeko mugimendua** (hemendik aurrera, Mugimendua) izena jarri zioten.

Jatorri mexikarra zuten iparramerikarren boteretze eta protesta etniko gisa identifikatu dute historialariek txikanoen Mugimendua. Hala ere, Mugimendua anitzagoa izan zen eta hainbat mugimendu barnebiltzen zituen: **eskoletan** pairatzen zuten **diskriminazioa** salatze mugimendua, **Vietnamgo gerraren** kontrako gazte-mugimendua, **nekazarien** eskubideen aldeko mugimendua, eta **“La raza unida”** alderdia sortu eta botere politikoa lortu ahal izateko mugimendua.

5.1.3. Txikanoak

Txikano deituraren hedapenak 1960ko eta 70ko hamarkadetako Mugimenduak izandako arrakastarekin dauka zerikusia. Hortaz, terminoak **jarrera politikoa adierazten** du, eta erabiltzailearen konpromiso politiko eta kulturala islatzen du. Txikano terminoak zehatzago AEBn jaio eta/edo hazi diren jatorri mexikarreko hiritarrei egiten die erreferentzia. Txikanoek beren-beregi baztertu egiten dute

AEBn hedatuta dagoen nortasunari buruzko uste bat. Hau da, iparramerikarra izateko ondare mexikarra ukatu egin behar dela. Txikano bezala identifikatzeak **mexikartasuna** eta **iparramerikartasuna** defendatu eta ospatzen du.

5.1.4. Txikano feministak

Txikano feministek **kritika** esanguratsuak egin dizkiote **Mugimenduari**, eta, oro har, mexikar-iparramerikar kultura **patriarkalari**. Emakumeen beharrak eta kezkak tradiziozko familia-ideologiaren menpe jarri dituztelako egin dituzte kritikak. Beste mugimendu batzuei ere –emakumeen mugimenduari eta gay/lesbianen mugimenduari– erronka egin diete txikano feministek. Ohartarazi dituzte mugimendu horietan ere barneratuta daudela arrazakeria, sexismoa eta homofobia.

Egun, **hogeita lau milioi** pertsona inguru dira AEBn bizi diren mexikarren ondorengoak: bederatzia milioi Mexikon jaio dira, eta hamabost milioi AEBn. Talde horren barnean sortutako literatura txikanoan bizipen berriak deskribatu dira, guztiz mexikarrak ez direnak, ezta erabat iparramerikarrak ere.

Horrek egiten du literatura txikanoa erdigunearen eta marjinen artean kulunkatzen den literatura izatea. Literatura horrek **izate hibridoa** goraipatzen du eta **auzoa** (izate horren bizitokia) **eremu politikoa** bihurtzen du. Hain zuzen ere, literatura txikanoak auzoa bihurtzen du kultura anglosaxoiaren gaitzespen eta erresistentzia gune.



AEB-Mexiko mugako heriotzen orotarria. Tomas Castelazo (2007) ©

5.2. Sandra Cisneros

Sandra Cisneros Chicagon jaio zen, 1954an. Aita mexikarra zuen eta ama mexikar-estatubatuarra. Zazpi neba-arrebetatik neska bakarra da Sandra Cisneros. 1976an ingeles-filologian lizentziatu zen Chicagoko Loyola unibertsitatean, eta 1978an, sormen-idazketari buruzko masterra lortu zuen lowako unibertsitateako arte ederren fakultatean. Ikasketak bukatu eta gero, irakasle gisa aritu zen Cisneros, ikasketak uztear zeuden nerabeekin lanean. Horrez gain, eskoletako poeta bisitaria izan zen, baita unibertsitate-kontratatzailea eta arte-administratzailea ere. Azken urteetan, AEBko hainbat unibertsitatetan idazle bisitaria izan da.

Idazteaz gain, Cisnerosek sortzaileak babestu egiten ditu. Adibidez, idazle izateko lehenengo pausuak ematen dabiltzan hainbaten ibilbidea sustatu du. Horretarako sortu zituen irabazi asmorik gabeko erakunde bi: *Macondo foundation* eta *Alfredo Cisneros del Moral foundation*. Lehenengoak, 25 urte beteko ditu 2020an, eta bigarrenak 15 urte daramatza martxan. Gainera, Cisneros *Los MacArturosen* antolatzailea da, hau da, MacArthur diru-laguntza entzutetsua jaso eta gainera, komunitate txikanoko aktibista direnen antolatzailea.

Sandra Cisnerosek herritartasun bikoitza dauka, estatubatuarra eta mexikarra, eta momentu honetan San Miguel de Allenden, Mexikon bizi da. Idazlearen web-orrian azaldu bezala, han igarotzen ditu Cisnerosek egunak chihuahua mexikar birekin, Texaseko txakur mestizoarekin, xolo-chihuahuarekin, eta hiru palmondo garairekin.

5.2.1. Literatura-lana

Sandra Cisneros trebea da literatura-genero ezberdinen idazketan: poesian, narratiban –istorio labur zein eleberrietan– eta saiakeran. Haren lanek gai argia izaten dute: langile-klasearen bizitza aztertzea, batez ere emakumezkoena eta txikanoena. Adituek diote Cisnerosena dela narrazio txikano berriaren adierazgarririk onena. Horregatik, sari ugari jaso ditu Ipar Amerikan eta baita nazioartean ere. Sariotatik aipagarria da AEBko

presidente izan zen Barak Obamak 2016an emandakoa, *National Medal of the Arts* (Arteen nazio domina).

Cisnerosen literatura-lanen arrakasta, argien, itzulpenek islatzen dute. Izan ere, hogeitaz hiru hizkuntza baino gehiagotara itzuli baitira, besteak beste, japonierara, Egiptoko arabierara eta galizierara. Idazlearen web-orriak dioen bezala, lan guztiak daude gaztelerara itzulita eta, gainera, Cisnerosek berak irakurritako audio-liburuak eskuratzeko aukera ere badago.

Sandra Cisnerosen obrak hauexek dira:

- Poesia liburuxka, **Bad Boys** (*Mutil okerrak*, Mango Press, 1980).
- Bi poema liburu: **My Wicked Wicked Ways** (*Nire izaera maltzur-maltzurra*, Third Woman Press, 1987; Random House, 1992) eta **Loose Woman** (*Kaskarina*, Alfred A. Knopf, 1994).
- Istorio-bilduma, **Woman Hollering Creek and Other Stories** (*Lloronaren erreka eta beste istorio batzuk*, Random House, 1991).
- Haurrentzako liburua, **Hairs/Pelitos** (*Ileak*, Alfred A. Knopf, 1994).
- Bi eleberri: **The House on Mango Street** (*Etxea Mango Street-en*, Vintage, 1991) eta **Caramelo** (*Karamelua*, Alfred A. Knopf, 2002).
- Irudi liburua, **Have You Seen Marie?** (*Marie ikusi duzu?*, Alfred A. Knopf, 2012).
- Saiakera pertsonalen bilduma da idatzi duen azken lana, **A House of My Own: Stories from My Life** (*Etxe bat Norberarena: nire bizitzako istorioak*; Alfred A. Knopf, 2015).

Jarraian, esku-artean dituzun pasarte hauek aztertuko ditugu.

ETXEA MANGO STREET-EN

Ez ginen beti bizi Mango Streeten. Lehenago Loomis-en bizi izan ginen hirugarren solairuan, eta lehenago Keeler-en. Keeler baino lehenago Paulina izan zen, eta lehenago ez dut gogoratzen. Baina gehien gogoratzen dudana da sarri aldatzen ginglea etxez. Bakoitzean gutariko bat gehiago egongo zela zirudien. Mango Streetera heldu ginenerako sei ginen: Ama, Aita, Carlos, Kiki, nire ahizpa Nenny eta ni.

Gurza da Mango Streeteko etxea, eta ez diogu inori errentarik ordaindu behar, edo lorretokia behereko auzokideekin partekatu, edo ez gara kontuz ibili behar zarata gehiegirik ez egiteko, eta ez dago ugazabarik sabaia erratzarekin jotzen duenik. Hala ere, ez da lortuko genuela uste genuen etxea.

Loomiseko etxea azkar utzi behar izan genuen. Ur-hodiak apurtu egin ziren eta ugazabak ez zituen konpondu nahi etxea zaharregia zelako. Bizkor alde egin behar izan genuen. Auzokoaren bainugela erabiltzen genuen eta gurera ura esne-kutxetan eramaten. Horregatik bilatu zuten Amak eta Aitak etxea, eta horregatik joan ginen Mango Streeteko etxera, urrun, hiriarren beste aldean.

Beti esaten ziguten egunen batean etxe batera joango ginglea bizitzera, ganorazko etxe batera, betiko gurza izango zena urtero aldatzen egon beharrik gabe. Eta gure etxe horrek beti izango zituen ura eta ur-hodi sendoak. Eta barruan, benetako eskailerak izango zituen, ez atarikoak, baizik eta telebistako etxeek dituztenak bezalakoak. Eta soto bat edukiko genuen eta, gutxienez, hiru bainugela, bainatzerakoan inori esaten ibili beharrik ez izateko. **Zuria** izango zen gure etxea zuhaitzez inguratuta eta hezirik gabe belarra hazten duen lursail edere batekin. Horrelakoa zen aitak

deskribatzen zigun etxea loteria txartela eskuan zuen; eta horrelakoa zen amak amesten zuen etxea ohertatu aurretik kontatzen zizkigun istorioetan.

Baina Mango Streeteko etxeak ez du kontatzen zutenarekin zerikusirik. Txikia eta gorria da eta eskailera **estruak** ditu etxaurrian eta leihoak hain dira txikiak **arnasari gusten** diotela pentsatuko zenukeela. Adreiluak erortzar daude han-hemen, eta etxean sartu ahal izateko gogor bultzatu behar da ate nagusia hain dago handituta. Etxaurrian ez dago lursailik, espaloi-ertzean udal etxeak landatutako lau zumar erre besterik ez. Aitzaldean garaje txiki bat dago oraindik ez dugun autoarentzako, eta lursail txiki bat alboetako eraikin biren artean egotzagatik ar e txikiagoa dirudiena. Eskailerak baditugu etxean, baina atariko eskailera arruntak dira, eta bainugela bakarra du etxeak. Guztiok partekatzen dugu logela –Ama eta Aitak, Carlos eta Kikik, nekak eta Nennyk.


Loomis-en bizi gizona, eskolako moja bat pasatu eta etxaurrian jolastzen ikusi ninduen. Sotoko garbitzergiko leihoak oholekin zudun estalita egun bi lehenago lapurtzera sartu zirelako eta ugazabak **BAI, IREKITA DAGO** idatzi zuen egurrean irabazirik ez galtzeko.

Non bizi zara? galdetu zidan.

Hantxe, esan nion atzamarrarekin hirugarren solairua seinalatuz.

Hantxe bizi zara?

Hantxe. Seinalatzen zuen tokira begiratu behar izan nuen –hirugarren solairua, pintura altxatuta, leihotik ez jausteko Aitak iltzatutako ohol zatiak. Zu hantxe bizi zara? Esateko moduak ez ez banintz bezala sentiarazi ninduen. *Hantxe*. Ni *hantxe* bizi nintzen. Buruarekin baietz esan nion.



Orduantxe jakin nuzn etxe bat izan behar nuzla. Benezako etxea, atzamarrarekin seinalatu nezakezen bat. Baina ez da hau. Mango Strazteko etxea ez da hori. Oraingoz, dio Amak. Aldi baterakoa, dio Aitak. Baina nik jakin badakit gauzak nolakoak diren.

ARIKETAK:

- a. Nork azaltzen digu etxea nolakoa den? Narratzaileari buruz zer informazio jaso dezakegu?
- b. Positiboa ala negatiboa da etxearen deskribapena? Zergatik? Argudiatu zure erantzuna testutik jasotako adibide ezberdinekin.
- c. Zergatik dira esanguratsuak letra lodiz idatzirik dauden hitzak? Berrirakurri testua arretaz eta azaldu, banan-banan, hitzek hartzen dituzten konnotazioak.
- d. Irakurri berri duzun txikanoei buruzko teoria kontutan harturik, zergatik da pasarte hau literatura txikano feministaren adibidea? Argudiatu zure erantzuna eta oinarritu testuko adibideetan.
- e. Nola ekarriko zenituzke Esperanzaren etxea eta egoera Euskal Herrira? Idazketa librea.

ETXE BAT NORBERAREN

Disu bat ez. Aitzaldeko apartamentu bat ezta. Gizonezko baten etxea ez. Maitalearena ezta. Etxe bat neurea. Nire atariarekin eta nire burkoarekin, nire petunia more ederrekin. Nire liburuekin eta istorioekin. Nire zapata parza ohre ondoan zain. Makila inori astindu beharrik gabere. Inoren zaborrik jaso beharrik gabere.

Elurraren pareko etxe isila soilik, ni sar naitzekeren eremua, poemaren aurretiko orri garbia.

ARIKETAK:

- a. Zein ezberdintasun dago “Etxea Mango Streeten” eta “Etxe bat norberarena”ko narratzaileen artean? Argudiatu zure erantzuna eta oinarritu testuko adibideetan.
- b. Zein ezberdintasun dago etxe bien artean? Garatu zure erantzuna testutik jasotako adibide ezberdinekin.
- c. Nola justifikatzen dute bi etxeen deskribapenek eleberri hau *bildungsroman* bat izatea?
- d. Sandra Cisnerosen web-orrian sartu eta haren gaineko informazioa bilatu eta gero, nolako antzekotasunak daudela esango zenuke “Etxe bat norberarena”ko fikzioa eta idazlearen bizitzaren artean?
- e. Bildu Virginia Woolf idazleari buruzko informazio biografikoa (jaiotze data eta toki, arraza, klase soziala, familia, ...) eta alderatu Sandra Cisneros idazlearekin. Egin itzazu zutabe bi idazle bien antzekotasun eta ezberdintasunak agerian utziz.
- f. Deskriba ezazu zure etorkizuneko etxe perfektua 7-8 lerrotan, forma eta eduki aldetik “Etxe bat norberarena” eredu hartuta. Idazketa librea.

IRAKURKETA GIDATUA:

KARAMELUA

Ñeapulecoko oroigarria

Umzak gara aitarren ohre gainzan dagoen argazkian. Umzak ginzen Ñeapulecon. Umzak izango gara beti. Aitararentzat oraindik gara argazki horretan bezalakoak.

Hemen dabilta Ñeapulecoko urak guruz atzean plitiplasta, eta hemen gaude lurraren eta uraren ezpain artean jesarrita. Gaztezenek, lolok eta Mzmok, adarrak jartzen dizkiozte elkarri; amama gogaikarriak besarkatu egiten ditu, inoiz halakorik egin ez badu ere. Ama harengandik ahalik eta urrunen eseri da,



adgitasunak uzten dion bestez; Toto harren ondoan etzan da. Umz nagusiak, Rafa, Ito eta Tikis, zutik daude aitarren beso estuek sortzen duten teilatupzan. Izeba Ilhoriak Antonizeta Araceli besarkatzen du. Izebak begiak ixten ditu obturadoreak kliska egiten duenean etorkizuna gogoratu nahiko ez balu bezala, Destiny Street-eko etxea saltzea, iparraldera, Monterrry-ra, bizitzera joatza.

Hemen dago aita begiak erdi itxita, nire antzera, argazki bat egiten didatengtan. Oraindik ez dago etsita, lanagatik nekata, arduratuta, zigarro pakete gehiegi erreta. Aurpegian ez du harren aurpegia besterik, eta bibote fina eta ondo ebakita Pedro Infanterena bezalakoa, Clark Gable-rena bezalakoa.

Amama gogaikarriak aitarren azal zuria du baina elefantaren zimurrekin, anbar kirtendun atzerki zahararen koloreko bainujantzia darama estu-estua jantzita.

Ez nago hemen. Hondartzan dabilen argazkilari batzuk argazki bat, oroigarri bat, eskaintzen dienean, nitaz ahaztu dira. Inor ez da konturatzen bakarrik nagoela, arzetan etxeak egiten. Ez dira ohartuko falta naizela, harik eta argazkilariak Catitaren etxean argazkia entregatu arte, eta nik lehengoz ikusi eta galdetu arte: “Noiz aterata dago? Non?”

Uz horretan guztiak konturatuko dira argazkia osatugabe dagoela. Ni existituko ez banintz bezala da. Ematen du ni naizela argazkilaria hondartzan tripodendun kamara sorbalan duela, galdetzen: “Oroigarri ederrren bat? Oroigarri ahaztezin bat?”.

Berde, zuri eta gorria

Ziztu bizian doaz Mexiko hirian dagoen aitita eta amama gogaikarriaren etxerantz osaba Chatoren bigarren eskuko Cadillac berria, osaba Babyren Impala berdea, uda horretan zeka erositako aitaren Chevrolet kamioneta gorria. Chicago, 66. Errepidea –Ogden Avenue Turtle Wax-eko dortoka erraldoia igarota– bidet osoa Saint Louis-era, Missouri-ra, aitak erdarazko izenetik deitzen duena: San Luis. San Luisetik Tulsa-ra, Oklahoma-ra. Tulsatik, Oklahomatik Dallas-era. Dallasetik San Antoniora Laredora 81 Errepidetik beste aldean egon arte. Monterrey. Saltillo. Matzahuala. San Luis Potosí. Querétaro. Mexiko Hiria.

Osaba Chatoren Cadillac zuriak gurut kamioneta gorria aurreratzen duen bakoitzean, lehengusuek –Elvisek, Aristótelesek eta Byronek– mingaina ateratzen digute eta eskuarekin agur esaten digute.

-Présatu- esaten diogu aitari - azkarrago!

Impala berdea aurreratzen dugun, Amor eta Pazek osaba Babyri sorbaldatik tira egiten diote.

-Daddy, please!

Nire nebek eta nik purrustadak egiten dizkiegu, mingainak atara eta aurpegiarak jarri, txistua bota eta atzamarrarekin szialatu eta barre egin. Hiru autoak –Impala Berdea, Cadillac Zuria eta kamioneta gorria– lasterketa batan, batzuetan bidet bazterretik elkarri aurrea hartzen. Emazteak zarataka “Motzlagu!” eta umek zarataka “Azkarrago!”.

Ederra zoritxarra gutariko bat zorabiatu eta autoa gelditu behar dugun. Impala berdeak, Caddy zuriak aurreratzen gaituzte burrunbaka, zaratatsu eta alai mila bandera bezala. Osaba Chatok zoro antzean jotzen du klaxona, pip pip.

6. Literatura afro-amerikarra

6.1. Testuingurua

6.1.1. Esklabotza Ameriketako Estatu Batuetan

Esklabotza 1619an hasi zen AEBn. Urte horretan, *White Lion* izeneko itsasontzi kortsarioak 20 esklabo afrikar eraman zituen Jamestown-era, Virginia-ko britainiar koloniara. Bortxaz hartu zituzten jatorri afrikarreko pertsona horiek, Sao Jao Bautista esklabo-ontzi portugaldarretik. XVII. mendean zehar, esklabo afrikarrak **ordaindu gabeko lanesku-iturri oparoa** bihurtu ziren Europatik Ipar Amerikara joandako kolonizatzaileentzat. Horren **ondorioz**, gainera, **esklabotzak** izugarri txirotu zuen kontinente afrikarra, hango gizon eta emakume osasuntsuenak eta **ekonomikoki baliagarrienak** hartzen baitzituzten esklabo gisa. Kopuru zehatzak ematea ezinezkoa den arren, uste da XVIII. mendean **7 bat** milioi afrikar eraman zituztela **bortxaz AEBra**.



Zartailuz zigortutako esklaboa ©



Esklaboen enkante eta salmenta ©

AEBn, esklaboek indarkeria eta esplotazio latza sufritu zuten. Afrikar jatorriko norbanakoak esklabo gisa mantentzeko, **debekuz eta zigorrez** osaturiko **sistema** bat ezarri zuten kolonizatzaile europarrek. Bortxak eta oinazeak definitzen zuen sistema zen esklabotza, eta esklaboen gaitasun fisiko eta intelektualak zanpatzea zuen helburu. Hau da, esklaboen **gizatasuna ukatzea**. Batetik, esklaboen mugimendua mugatzen zuen sistema zen esklabotza. Alegia, esklaboak ezin ziren baimenik gabe hara-hona ibili. Bestetik, irakurtzen eta idazten ikastea debekatzen zuen. Ezarritako indarkeriazko sistema zorrotz

horrek bermatu zuen esklaboak elkarrengandik banaturik mantentzea eta jabeen kontra antolatzeke aukerak zapuztea.

XIX. mendearen erdialdera **abolizio-mugimenduek** eztabaida sutuak piztu zituzten esklabotasuna zela eta. Itilu horiek eragin zuten, mendebalderanzko hedapenarekin batera, **gerra zibil** odoltsua 1861. urtean. 1865ean bukatu zen gerra eta, Batasunak (iparraldeko estatuak) lortu zuen garaipena Konfederazioaren (hegoaldeko estatuak) aurka. Gerrak **4 milioi esklabo libre** egin bazituen ere, esklabotzaren ondareak eragina izaten jarraitu zuen estatubatuarren historian.

Mende bat beranduago, esklabotzaren aroan hasitako arrazakeriaren aurkako erresistentziak **eskubide zibilen aldeko mugimendua** sorrarazi zuen. Mugimendu horrek ekarriko zituen aspalditik afro-amerikarrentzat lortzeke zeuden eskubide politiko eta sozial garrantzitsu batzuk.

6.1.2. 60ko hamarkada Amerikako Estatu Batuetan

Eskubide zibilen aldeko mugimenduak **50eko eta 60ko** hamarkaden bitartean erdietsi zituen lorpen **entzutetsuenetarikoak**. Ekintzaileek, **Jim Crow legeek** ezarritako bereizketa sistema ezabatzea bilatzen zuten, hainbat estrategiaren bitartez. Aktibistak klase eta jatorri askotarikoak ziren eta horri egozten diote batzuek mugimenduaren indarra eta beste batzuek, ahultasuna. Dena dela, dudarik ez dago afro-amerikarren eskubideen aldeko borroka ordura arte ez bezala elkartu zituela klase eta arraza bateko baino gehiagoko hiritarrak. Horren ondorioz, Mugimenduak, hein batean behintzat, AEBko arrazakeriaren **bidegabekeria** ankerra **kolokan** jartzea lortu zuen.

Rol esanguratsua izan zuten **emakume** afro-amerikarrek, bai eskubide zibilen aldeko mugimenduan eta baita emakumeen mugimenduan ere. Tokiko eskubide zibilen aldeko erakundeak **bideratu** zituzten eta eskola bereizien kontrako auzietan abokatu gisa ere aritu ziren. Zoritxarrez, mugimendua horren lorpenak **gutxietsi** egiten ziren sarritan, gizonen lortutakoen itzaletan jarrita. Oraindik

ere, Mugimenduaren arrakasta gizonezkoen lanari lotu ohi zaio garai hartako **narrazioetan eta momentu historiko hura oroitzeko ospakizunetan.**

Emakumeak sarri isilarazi eta ikusezin egiten zituzten. Izan ere, **genero-bereizkeria** eta **sexu-jazarpena** jasan izan zituzten emakume askok, baita **mugimenduaren barruan** ere. Ondorioz, 70eko hamarkadan, mugimendu feministarekin bat egin zuten emakume afro-amerikar ugari, eskubide berdintasunaren alde lan egiteko. Beharrezkoa da, beraz, eskubide zibilen aldeko mugimendua aztertzean, emakumeek lortutakoa goraiatzeko eta baita haiek izandako zailtasunak ere zintzoki onartzea.

Laburbilduz, esklabotza ofizialki indargabetua bazegoen ere, afro-amerikarren aurkako **diskriminazioak** bizirik zirauen **oraindik XX.** mendean. Horren adibide bi: 1954an **Oliver Brown**-ek Hezkuntza Kontseiluaren kontra aurkeztutako salaketa, eta 1955ean **Rosa Park**-ek zuzendutako Montgomery-ko urtebeteko autobus-boikota. Auzitegietan eta kaleetan ez ezik, afro-amerikarrek **artean** ere aurkitu zuten **borrokatzeko** eta **ospatzeko** gune aproposa.

6.1.3. Arte Beltzaren mugimendua

Arte afro-amerikarra zer zen definitu nahi zuen arte beltzaren mugimenduak. Definizio hori lortzeko, afro-amerikar komunitatetik bereizten zen artista baztertu egiten zuten guztiz. Talde horretako idazleentzat literatura zen –poesia bereziki– bultzatu nahi zuten biderik berehalakoena **kontzientzia afro-amerikarra definitzeko.** Garrantzi berezia eman zioten kaleko **argotari**, **bluesaren** erritmoari, eta **jazz** eta **gospel** musikari. Arte beltzaren mugimenduak nazio kultural propioaren eraikuntza bilatzen zuen. Horretarako, berariazko **erretorika probokatzailerak** sortu zuten.

Emakume afro-amerikarrek arbasoen kultura kostata **gordetzea** lortu zuten, horretarako beren burua arriskuan jarri bazuten ere. Emakumeek bereziki sufritu zuten esklabotzaren indarkeria eta bortxa. Afrikarrak eta emakumezkoak izanik, lan-tresna eta sexu-jostailu bihurtu zituzten kolonizatzaileek. Bizipenetatik abiatuta, egunerokotasunak eskainitako oinazeak eta itxaropenak adierazi

zituzten hitz eta irudien bitartez. Afro-amerikar emakume artista eta idazle kopurua haziz joan zen gerra zibilaren eta **berreraikuntzaren** garaietan. Azkenean, 20ko hamarkadan lortuko zuten komunitateko gehiengoaren esker ona **Harlem-go Errenazimendua** zeritzon mugimenduarekin batera.

6.1.4. Afro-amerikar feministak

Ekoizpen intelektualari eta artistikoari dagokionez, esan daiteke afro-amerikarren **kritika feministaren loraldia 1979-83** urte bitartean gertatu zela. Garai hartan bildu ziren literatura-lan eta saiakera sozio-politiko aberats eta anitzak. Idazle horien artean eztabaidatuenetako bat da Michele Wallace-k idatzitako ***Black Macho and the Myth of the Superwoman*** (*Afro-amerikar zangarra eta super-emakumearen mitoa*) lana.

Bi saiakerak osatzen dute 1980an argitaraturiko *Afro-amerikar zangarra...*, eta bietan eskubide zibilen aldeko mugimenduaren baitan izandako sexismoa salatzen du Wallacek. Idazleak dio garaiko **botere politikoa eta ekonomikoa generoaren zatiketan** dagoela oinarrituta. Are gehiago, Wallacek argudiatu zuen jarrera matxista horrek eragozten zuela gizon afro-amerikarraren benetako askatasuna. Idazlearen esanetan, ondorioz, emakume afro-amerikarrak arrazan eta generoan oinarritutako zapalkuntza bikoitza jasaten zuten AEBko gizartearen arrazakeria salatzen zuten gizon afro-amerikarregandik.

6.2. Toni Morrison

Toni Morrisonen jatorrizko izena Chloe Anthony Wofford da. Morrison Lorain-en (Ohio-n) jaio zen 1931n, eta Bronx-en (New York-en) hil zen 2019an. Gurasoek George Wofford eta Ramah Willis-ek biziki maite zuten kultura afro-amerikarra. Familia-giro horretan, ipuin-kontaktak, abestiak eta elezaharrak izan ziren Morrisonen haurtzaroko giltzarri. Howard Unibertsitatean lizentziatu zen 1953an, eta familian unibertsitate-titulua lortzen lehena bihurtu zuen horrek. Howarden ikasle zela erabaki zuen Chloe Anthony Woffordek Toni Morrison izena hartzea. Hantxe baztertu zuen dantzaria izateko haurtzaroko ametsa ere, eta irakasle izatea erabaki. 1955ean master-titulua lortu zuen Cornell Unibertsitatean.

Ikasketak burutu ondoren, ingelesa irakasten aritu zen bi urtez Texas Hegoaldeko unibertsitatean (Texas Souther University). Garai hartan hasi zen *New York Times Book Review* eta *New York Times* aldizkarietan sarritan argitaratzen. 1957tik 1964ra bitartean, Howard unibertsitatera bueltatu zen, oraingoan irakasle gisa. 1965ean, fikziozko lanen editore egin zen Random House-n, eta hainbat urtez egin zuen lan bertan. 1984an *State University of New York, Albany* Unibertsitatean hasi zen sormenezko idazketa eskolak ematen. Handik bost urtera, lana utzi zuen Princeton Unibertsitatean irakasle aritzeko. Princetonen hartu zuen erretiroa Toni Morrisonek 2006an.

6.2.1. Literatura-lana

Aditu askok uste dute Morrisonen literatura-lanak literatura-arkeologiaren adibide direla. Hau da, idazleak historia berreskuratu egiten du, eta irudimenarekin eta bizipenekin uztartzen du literatura-lanetan. Arkeologia horren eraikuntzan, eragin ugari jasotzen dute idazlearen lanek: familiak gertakari mistikoetan zuen sinesmena eta onarpena, gurasoek bizitako istorioak, eta gaztetan entzundako elezaharrak, besteak beste. Horiek guztiek ohartarazi zuten Morrison afro-amerikarren historiak eta kulturak zuten garrantziaz. Era berean, erabakiarazi zioten jakintza hori nola erabili.

Afro-amerikarren esperientzia da, emakumezkoena batez ere, Morrisonen eleberrien gai nagusia. Gizarte bidegabe batean bizi diren pertsonaiak borrokan ari dira beren burua eta nortasun kulturala aurkitu eta definitzeko. Irudimenaren, estilo poetiko bihurriaren eta espiritualtasunaren arteko elkarlan aberatsak ahots ahaztezina ematen diote Morrisonen istorioei.

Ez da harritzekoa, beraz, idazleak sari ugari jasotzea. Aipagarriak dira 1993an, komunitatearen baitan, afro-amerikarren esperientzia azaltzeagatik jasotako Literaturako Nobel saria; edo *Beloved (Maitea)* eleberriagatik 1988an irabazitako Pulitzer-a. AEBko presidente biren eskutik ere jaso ditu sariak Morrisonek. Bill Clinton-ek 2000. urtean eman zion *National Humanities Medal*-a (Humanitateen nazio domina) AEBko bizitza eta pentsamendu kulturalari eginiko

ekarpenengatik. 2012an Barack Obama-k ere hala egin zuen *National Medal of the Arts*-a (Arteen nazio domina), sari zibil gorena, eman zionean.

Toni Morrisonen obra osoaren zati bat besterik ez da hurrengoak:


- Eleberrien artean ezagunenak dira ***The Bluest Eye*** (*Begirik urdinena*, Holt, Rinehart and Winston, 1970), ***Sula*** (Knopf, 1973), ***Song of Solomon*** (*Solomon-en abestia*, Alfred A. Knopf, Inc. 1977), ***Tar Baby*** (*Bikezko haurra*, Alfred A. Knopf, Inc. 1981), ***Beloved*** (*Maitea*, Alfred A. Knopf, Inc. 1987), ***Jazz*** (Alfred A. Knopf, Inc. 1992), ***Love*** (*Maitasuna*, Alfred A. Knopf, Inc. 2003) eta ***God Help the Child*** (*Jainkoak lagun dezala haurra*, Alfred A. Knopf, Inc. 2015).
- Haur literaturan: ***The Big Box*** (*Kutxa handia*, 1999), ***Peeny Butter Fudge*** (*Kakahuetetxozko gurin karamelua*, 2009), eta ***Please, Louise*** (*Mesedez, Louise*; 2014), besteak beste.
- Istorio laburren bi liburu ditu: ***Recitatif*** (*Recitatif*, 1983) eta ***Sweetness*** (*"Gozotasuna"*, 2015).
- Antzerki-lan bi: ***Dreaming Emmett*** (*Emmett ameslaria*, 1986an antzeztu zena) eta ***Desdemona*** (*Desdemona*, 2011n antzeztu zena).

Fikzioa ez diren lan batzuk: ***Playing in the Dark: Whiteness and the Literary Imagination*** (*Ilunetan jolasten: zuritasuna eta literatura-irudimena*, 1992), ***Remember: The Journey to School Integration*** (*Gogoratu: hezkuntza-integratiorako ibilbidea*, 2004), ***What Moves at the Margin*** (*Ertzean dabilena*, 2008), ***The Origin of Others*** (*Besteen jatorria*, 2017).

Jarraian, esku artean dituzun pasarte hauek aztertuko ditugu.

MAITASUNA

Emakumezaren hankak irakita daude zabal, beraz ahapeka abesten dut. Gizonak sukor jartzen dira, baina badakite haien zatidela guztia. Lasaitu egiten dira. Ezar egina gabe, begiratu besterik egina ezinik, frogatzen da, baina ez dut hitzik esaten. Beraz naiz isila dena den. Haurtzaroan adrekitzat hartzen ninduten; emakume gaztea nintzena zuhurra esaten zidaten. Beranduago heldutasunak dakarren jakituria nuela uste zuten. Gaur egun isiltasuna gauza bitxiztat



daukatzen eta nire arrazako gehienek ahaztu dute hitz gutxitan asko esatearen edertasuna.


Orain mingainak beraien kabuz dabilta burmuinaren laguntzarik gabe. Hala ere, elkarrizketa arruntak izateko gai nintzen, eta beharra zegoenez, zerbaiten alde egina ezakizko hitz, umetoki bat –edo labana bat– gelditzeko besteko indararekin. Jadanik ez, 70ko hamarkada hartan, emakumeak aulkitan hanka-zabalik esertzen hasi zirenez eta telebistan hankartea mugituz dantzatzeko, aldizkari guztiak atzaldak eta izter barruak erakusten hasi zirenez, emakumeak hori besterik izango ez balira bezala, tira, isildu egina nintzen erabat. Emakumeak jende aurrean zabaltzeko ados jarri zirenerako, sekretuak egon ohi ziren –batzuk gordetzeko, beste batzuk esateko. Orain? ez. Lotsagabekeriak eguneko kontua izanik, ahapeka abesten dut. Ahoko musikari dantzari dabilta hitzak buruan.

ARIKETAK:

- Nork egiten digu hitz pasarte honetan? Nolako narratzaile mota da? Zer informazio ondorioztatu dezakegu pertsonaia horri buruz?
- Irakurri berri duzun afro-amerikarrei buruzko teoria kontutan harturik, zergatik da pasarte hau literatura afro-amerikarraren adibidea? Arrazoitu erantzuna eta oinarritu testuko adibideetan.
- Zer ezaugarri eskaintzen dizkigu gogoetak elkarrizketak eskaintzen ez duena? Zergatik uste duzu direla askotarikoak pertsonaien eta narratzaileen gogoetak Morrisonen literatura-lanetan?
- Zer deritzozu narratzaileak ahapeka abesteari? Esanahi esanguratsurik duela uste duzu? Eman zure iritzia.
- Zergatik izan daiteke iraultzailea bai hitz egitea eta baita isilik egotea ere? Argudiatu erantzuna adibideak emanaz.

MATEA

‘Gizon bat ez da gizon bat besterik’ esan zuen Baby Suggs-ek. ‘Baina seme bat? Tira, hori bada *norbait*.’ Arrazoi askorengatik zekukan zentzua zihornak **dama jokoan** bezala mugitu baitziren gizonak eta emakumeak hara-hona, Babyren bizitza osoan bezala *Sethe*-rengan. Baby Suggsek ezagutzen zuen oro, zer esanik ez, maitatzen zuen oro, ihes egindakoa edo urkatutakoa ez bazen, errerentan utzitakoa zen, **alokatutakoa**, erositakoa, bueltan bidalitakoa, biltzaratutakoa, hipotekatutakoa, irabazitakoa, lapurtutakoa edo harrapatutakoa. Beraz, Babyren zortzi semeek sei aita zituzten. Bizitzaren zatarkeria deitzen zuen. Astindu ikaragarria jaso baitzuen ikasi zurengan, inork ez ziola dametara jolasteari uzten piezak bere seme-alabak zirengan ere. Hala zen luzaroen edukitzea lortu zuen semea. Hogei urte. Bizitza oso bat. Babyri emana, zalantzarik gabek, konpentsatzeko alaba biak, bata zekin bestea oraindik helduen hortzik gabek, salduta eta joanda zudela eta ez zuela izan



eskuaz agurtzeko aukerarik ez. Konpentsatzeko kontramaisuarren laguntzailzarekin ohertatu zela lau hilz hirugarren haurra, mutikoa, berarekin edukitzearren. Hurrengo urteko udaberrian, egurraren truke **galtzeko** haurra; eta haurdun gelditzeko haurdun utziko ez zuela zin egin eta hala utzi zuen gizonarekin. Azken haur hura ezin izan zuen maitatu eta gainzakoak ez zituen maitatuko. 'Jainkoak har dezala nahi duena', esan zuen. Eta Jainkoak hartu zuen, eta hartu zuen, eta hartu zuen. Eta orduan eman zion Hallék askatasuna, jadanik askatasunak **esanahirik ez** zuenzan.


ARIKETAK:

- a. Nola dakigu Baby Suggs pertsonaia esklabo izandakoa dela? Argudiatu zure erantzuna eta oinarritu testuko adibideetan.
- b. Zergatik dira esanguratsuak letra lodiz idatzirik dauden hitzak? Berrirakurri testua arretaz eta azaldu, banan-banan, hitzek hartzen duten konnotazioa.
- c. Toni Morrisonen lan honi buruz informazioa bilatu eta aurkitu eleberria zer pertsonaiatan dagoen oinarriturik.
- d. Bildu eta alderatu unitate honetako beste idazle biei buruzko informazio gehigarria. Egin itzazu hiru zutabe eta utzi agerian idazleen antzekotasunak.
- e. Idatzi pasarte honi jarraituko liokeen 10 lerrotako gogoeta bat Hallen ikuspuntutik eta deskribatu ama. Idazketa librea.

SULA

1920. Sundown House-tik ahalik eta urrunen izan behar zuen. Eta amaren adin ertaineko iloba, iparraldeko Medallion izeneko hirian bizi zena zen hori ziurtatzeko zekukan aukera bakarra. Sarjeta gorriren jazarpenen bizi izan ziren hamar urtez Hellen Sabat and haren amama. Sarjeta haien atzetan jaio zen Hellen, hantxe lan egiten zuen emagaldu krzolzarren alaba. Amamak Sundown Houseko argi leun eta alfombra lorezkoetatik urrun gramen zuen

eta Ama Birjina koloretsoaren begi tristean azpian hazi zuen, eta amaren odol basatiaren zantzuen aurrean etengabe ernu egon zedin aholkatu. Beraz, Willy Wright bisitan etorri zitzaionean New Orleans-era Cecile Izaba Zaharrari, Hellen politarenganako xarma ezkontza proposamen bihurtu zen –bi emakumeen pretsiopean. Itsasgizona zen (edo, hobeto esateko, aintzira-gizona, sukaldaria baitzen Great Lakes lineako ontzi batzen),



hamar egun bakoitzeko hiru eguneko bakarrik porturatzen zena. Senarrak Medallionera gramen zuen bizitzera, adreiluzko atari arkupeduna eta leihoan benetako parpailadun gortinak zituen etxe apainera. Senarra etxean luzaroan ez egotea aski gramangarria egiten zitzaion Hellen Wrighti, bereziki, berderatzi urte inguruz ezkondurik egon ondoren, alaba jaio zen. Bizitza honetan inoiz aurkitzea espero zuena baino erosotasun eta zentzu-iturri handiagoa zen alaba. Ikaragarri hazi zen amatasunari esker –bihotz-bihotzetik eskerrak ematen zituen alabak ez zuelako amaren edertasun nabarmena jaso: haren azalak errautsa zuelako, bertilak ugariak ziruelako duintasuna galdu gabe luzerarekin, Willyrena zen sudur zabal eta zapala zuelako (nahiz eta Hellenek zertxobait hobetzera lortuko zuela espero zuen) eta ezpain beteak. Hellenen agindupean esanekoa eta hezibide

ongkoa bihurtu zen neskatoa. Ngi txikiak erakutsitako edozein gogoberotasun lasaitzen zuen amak alabaren irudimena lurperatu zuen arte. [...]

Prest zedun egunean, Helenek urdaiazpiko kezatu bat prestatu zuen, ohar bat utzi zion aintzirari loturik bizi zen senarrari, goizago porturatuko balitz, eta burua tentsu eta ekipajagatik besoak zurrun joan zen tren geltokirantz alabaren aurretik. Gogoratzen zuena baino bide luzeagoa zen, eta kantoia biratu bezain pronto ikusi zuten trenea lurrinez lausotzen zebilgela. Nasa korrika zeharkatu zuten maletazain beltzak zuzendutako bagoiaren bila. Horretan ere egin zuten huts. Helene eta alaba hogei bat gizon eta emakume zuriz betetako bagoi batean sartu ziren. Atzera egin eta bagoiaren egurrezko hiru mailak jaitsi beharrezan, Helenek lotsa pixka bat saihestea erabaki zuen eta aurrera egitea beltzen bagoira iritsi arte. Bi maleta eta sokadun eskuko poltsa zeramatzen; alabak saski bat zeraman jatekoarekin. BELTZAK BAKARRIK zihoen atea ireki zutenezan, txartel-zulatzailu zuri bat ikusi zuten haingana hurbiltzen. Egun freskoa zen, baina emakumearen aurpegiak izerdi geruza finez dirdiratzten zuen alabarekin atea irekita mantentzeko ahaleginetan, ekipaiari gogor heldu eta, aldi berean, bagoian sartzeko egindako esfortzua onduz. Txartel-zulatzailuak emakume hori-zurbilgan zehar bidaiatu zuen begiradarekin eta, gero, hatz txikia belarrian sartu zuen argizariz hustu arte eragiteko. ‘Zertan zabilzala uste duzu, neskato?’ Helenek burua altxatuz begiratu zion. Hain laster. Hain laster. Hasi ere ez zuen egin bueltako bidai. Buelta amamak hirian zuen etxera, sarra gorriek distiratzten zuten hirira, eta jadanik ‘neskato’ esan zioten. Zaurgarritasun zahar guztiak, nolabait akastuna izatearen beldur zahar guztiak bildu zitzaizkion sabelgan eta eskuak dardarazi zizkioten. Hitz bakar hori entzun zuen; zintzilik gelditu zen hitza kapela hegal-zabalarren gainean. Kontu handiz berdindutako tokitik irristatu zitzaion kapela

ahaləginarən ahaləginəz, çta orain okərtuta zəukan bəgi gainzan, txangoan joan izan balitz bəzala.

Eleberri estatubatuarra XX.-XXI. mendeetan

IRAKASLEARENTZAKO MATERIALA

Eleberri estatubatuarra

1. Aurkezpena

Unitate honetan hiru idazle landuko dituzu: **Louise Erdrich** (1954-), **Sandra Cisneros** (1954-) eta **Toni Morrison** (1931-2919). Ikasleentzako materialaren atalean baino informazio zabalagoa jasoko duzu idazleei buruz, ikasleei irakasteko oinarri sendoagoa izan dezazun. Idazle horiek tradiziozko literatura gainditzen dutela erakusteko lau galderari erantzunez ezagutuko ditugu haien lanak. Gogoan izan behar da Louise Erdrich, Sandra Cisneros eta Toni Morrison komunitate natibo-amerikarraren, txikanoaren eta afro-amerikarraren eredugarri direla, hurrenez hurren.

1.1. Louise Erdrich (Minnesota, 1954 -)

Zer hutsune betetzen du Erdrichen literatura-lanak?

Isiltasunak garrantzia handia du natibo amerikarren kulturean. Isiltasuna da bakearen eta baretasunaren sinboloa haien tradizioan. Hau da, gizakien munduaren eta naturaren arteko harmonia adierazten du isiltasunak. Hortaz, natibo amerikarrek idatzizko lan gutxi izatea bat dator isiltasunaren tradizio horrekin. Egoera horrek, bestalde, ahalbidetu egin du estatubatuar zuriak natibo amerikarren izenean hitz egitea. Beraz, natibo amerikarren isiltasuna aitzakia hartuz, estatubatuar zuriak natibo amerikarren "interprete" gisa aritu izan dira luzaroan (Hoeveler, *"Text and Context"* 1). Louise Erdrichen literaturak hautsi egiten du tradiziozko isiltasun hori eta natibo amerikarren komunitatearen barneko ahots bilakatzen da.

Nola birdefinitzen du Erdrichek literatura?

Etnia kategoria naturala eta aldaezina balitz bezala deskribatu izan dute gizarte-eta literatura-ikasketa tradizionalak. Kategoria hori horrela pentsatzeak balio izan du talde-koherentzia sustatzeko. Ikuspegi horretatik nabarmendu da, hain zuzen ere, natibo amerikarren ikerketetan basati onberaren tradizioa. Aurrez kondenatuta dagoen arraza bateko kide zintzo gisa irudikatu dute natibo amerikarra ikerketok. (Castillo, *"The Construction of Gender and Ethnicity"* 1-2)

Tradizio hori zalantzan jartzen du Louise Erdrichek eta beste idazle natibo amerikar batzuek. Erdrichek idatzitako literatura-lanek chippewa tribuko kultura eta ezagutzak idatzizko hizkuntzara ekarri dituzte. Arbasoen tradizioa eta ahozkoitasuna biltzen dituzte lan horiek.

Erdrich **ipuin kontalari** arrakastatsua izatearen arrazoia hurrengoa da. Kontaketa arrakastatsu orok askotariko entzule-irakurleak hartzen ditu kontuan, natibo amerikarra eta baita natibo amerikarra ez dena ere. Erdrichek natibo amerikarren tradizioan finkaturiko ipuin-kontalaritza erabiltzen du chippewaen ondarea idatziz jasotzeko.

Zein dira Erdrichen literatura-lanen abiapuntua eta helmuga?

Idatziz gordetzen ditu Erdrichek oroitzapenak. Kultura natibo amerikarraren oroitzapenak uztartu egiten ditu gertaera pertsonalekin. Beraz, **taldearena** eta **ahozkoa** den jakituria Erdrichek literatura pertsonala eta idatzizkoa bihurtzen du. Erabilitako ahotsa ere, ahozkoitasunaren eta idatzizko tradizioen arteko batasuna da, eta tradizio biek dituzten ezaugarriak biltzen ditu.

Norberaren eta talde-ondarearen duintasuna mantentzea izan da Ameriketako talde etniko guztien erronka (Hoeveler, *“Text and Context”* 3). Beraz, egungo natibo amerikarren erronkak ez dira gehiegi bereizten XVII. mendekoetatik. Natibo amerikarren eta estatubatuar zurien balio sistemen oinarrian errealitate bateraezina dago. Komunitate biek lurrarekiko jarrera kontrajarriak dituzte; izan ere, natibo amerikarrek **lurra** izate **sakratutzat** dute, eta estatubatuar zuriek, aldiz, etekin ekonomikoa lortzeko ondasuntzat. Bi balio-sistema horiek eragiten dituzte, ondorioz, bi tradizioen arteko liskarrak eta ulertu ezinak.

Zein da Erdrichen literatura-lanen gai nagusia?

Natibo amerikarren ahozko kulturen etengabe agertzen diren gaiak aztertzen ditu Erdrichek eleberrietan: batetik, goian aipatutako **naturarekiko** errespetu sakona islatzen du; bestetik, mendebaldeko literaturan agertzen diren genero **rol patriarkalak** bertan behera uzten dituen natibo amerikarren tradizioari eusten dio (Castillo, *“The Construction of Gender and Ethnicity”* 6); azkenik, natibo

amerikarren eta haien kulturaren biziraupena da Erdrichen gai garrantzitsuena. Literaturaren bidez; Erdrichek **biziraupena** ziurtatuko duen aurrerapausoa idatziz lortzen du.

1.2. Sandra Cisneros (Illinois, 1954 -)

Zer hutsune betetzen du Cisnerosen literatura-lanak?

Sandra Cisnerosek kontatzen ez diren istorioak azalatu nahi ditu literatura-lanetan. Istorio horiek komunitate txikanoen emakumeek bizi izan dituzten gertaerak dituzte oinarrian eta baita pentsatzen dituzten ideiak eta sentitzen dituzten sentimenduak ere. Txikanoen literatura-tradizioak ikusezin, entzunezin eta mutu egiten dituen **emakumeen errealitatea** deskribatzen du. Eta deskribapen hori egiten du emakumeen ikuspuntutik. Hau da, barne- eta komunitate-bizitza propioak azaltzeko aukerarik edo gaitasunik izan ez dutenen istorioak idazten ditu Cisnerosek.

Nola birdefinitzen du Cisnerosek literatura?

Cisnerosek onartu egiten du ez dela zeregin erraza **idazle** gisa **ahots** propioa aurkitzea. Horretarako, noraezean ibili behar izan duela azaldu du idazleak (Satz, *“Returning to One’s House”* 4). Norberak dituen berezitasunek (arrazari, generoari eta klaseari dagozkienek) erabat definitzen dute idazlearen ahotsa. Beraz, Cisnerosek, lehenengo, **langile klaseko emakume txikanoa** zela barneratu behar izan zuen; gero, kokagune horrek ekarritako esperientziak aztertu zituen. Pausu bi horiek eman ondoren, gai izan zen zer ahotsekin hitz egin nahi zuen eta zer gai idatzi nahi zituen erabakitzeko.

Mexikarra eta feminista izatea kontraesan bezala bizi izan du Cisnerosek. Kontraesan horretan kokatzen dira, halaber, edozein kultura patriarkaletan hazitako emakume idazle asko. Aukeratutako gaiak kultura mexikarra saldu egiten omen dutelako, komunitate txikanoen kide ugariak Cisneros errudun sentiarazi dute. AEBn nagusi den kultura anglosaxoiaren eragin eta ideia arrotzak bereganatzen dituen literatura idazteaz ere salatu egin dute. Cisnerosen kasuan, beraz, egozten dioten **traizioa bikoitza** izan da: kulturala eta genero mailakoa.

Zein dira Cisnerosen literatura-lanen abiapuntua eta helmuga?

Lehenagoko idazleen literaturaren forma, estiloa eta hausnarketak tradizio txikanora egokitu ditu Cisnerosek. Egokitzapen horrek hausnarketa sakonak ahalbidetu dizkio subjektibitateari, gizarte-klaseari eta arrazari buruz egiteko. Ondorioz, tradizioan eta literatura garaikidean landu ez diren pertsonaiak, gaiak eta literatur generoak aurkezten ditu Cisnerosek bere literatura-lanetan.

Tradiziozko literatura anglosaxoiari **salaketa txikanoa** egiten diote Cisnerosen eleberri eta poesia lanek. Literatura-lan horiek emakume txikanoek AEBn bizitako sufrimendua eta zapalkuntza islatzen dituzte, poztasunarekin eta gozamenarekin batera. Sentimendu horiek muga fisiko eta kultural zehatzak dituzte, eta muga horiek murrizten dute emakume txikanoaren esperientzia AEBn. Beraz, Cisnerosek komunitate txikanoaren bihotzean bizitakoa jendaurrean aurkezten du, eta **tradizio** literarioa errealitate txikanoarekin **birdefinitu**.

Zein da Cisnerosen literatura-lanen gai nagusia?

Cisnerosek AEBko **auzo txikanoen** errealitatea du literatura-lanen sorburu. Idazleak onartu bezala, auzoa sarritan deskribatu izan da txikano literaturan (Satz, *“Returning to One’s House”* 3-4). Hala ere, aurkeztutako auzoa arrotza egiten zaio Cisnerosi, gizonezkoen ikuspuntua soilik adierazten duen heinean. Gizonentzat koloretsua eta dibertigarria den auzoa, iluna eta arriskutsua da emakume txikanoentzat. Ereku fisiko horrek eragindako kultura eta genero mailako zapalkuntza salatu dute Cisnerosen literatura-lanek. Literatura lanok ez dute zalantzan jartzen gizonezko idazle txikanoen deskribapenak. Hala ere, auzo txikanoak emakumeei eskaintzen dizkion bizipenak azaldu eta salatu beharrak bultzatzen dute idaztera.

1.3. Toni Morrison (Ohio, 1931-2019)

Zer hutsune betetzen du Morrisonen literatura-lanak?

Baztertuta sentitzen zen Toni Morrison literatura irakurtzean (Christian, *“Layered Rhythms”* 3-4). Morrisonen iritziz, tradiziozko literaturak ez du emakume afro-amerikarra irakurle gisa kontuan hartzen. Hutsune hori betetzeko ahaleginetan, literatura-lan ugari eta askotarikoak sortu ditu. Hau da, Morrisonen literaturak

komunitate afro-amerikarren beharrei erantzuten die. Horretarako, afro-amerikar eta emakume gisa errealitate hurbila **hizkuntza** eta **irudi propioz** adierazi du. Arraza, generoa eta klasea uztartzen dituen ahotsarekin AEBko kultura afro-amerikarra eta historia aberastea eta berreskuratzea lortu du Morrisonnek.

Nola birdefinitzen du Morrisonnek literatura?

Morrisonnek lan izugarria egin du arte beltzaren parte den **estilo** literario **bereizgarria** sortzeko. Idazlearen ustez, literatura beltza ez da soilik idazle afro-amerikarrek idatzizakoa edo pertsonaia beltzak dituen literatura. Idazlearen iritziz, deskribapen hutsal horrek mesede baino kalte handiagoa egiten dio literatura afro-amerikarrari. Beraz, beharizan afro-amerikarrei erantzuteko, komunitate horren errealitate eta bizipenen isla zintzoa den estilo literario propioa sortu du Morrisonnek.

Literatura-estilo berezia ez ezik, AEBko **historia zalantzan** jartzen du Morrisonen literatura afro-amerikarrak. Morrisonnek dio afro-amerikarren historia zapaltzaileen ikuspuntutik idatzita dagoela; horregatik, afro-amerikarren benetako historia hutsunez eta akatsez idatzia dagoenez, beharrezkoa da esperientzia pertsonaletik abiatutako narrazio historikoa berridaztea. Berreskuratze-lan hori ederto egiten du Morrisonnek bere literatura-lanetan, eta irakurlea esklabotza garaitik egungo errealitateraino eramaten du.

Zein dira Morrisonen literatura-lanen abiapuntua eta helmuga?

Morrisonnek **ahots bikoitza** darabil bere literatura-lanetan. Hau da, afro-amerikarren beharrei erantzuten dien literatura sortzeak ez dakar literatura hori irakurle afro-amerikarretara mugatzea. AEBko tradiziozko literaturak ezabatu duen ondare afro-amerikarra askotariko irakurleei eskaintzen dio Morrisonnek. Ondare hori eskaintzeko, kontu handiz eraikitzen ditu literatura-lanak. Batetik, istorioak asmatzen ditu irakurle afro-amerikarrek ulertu eta beren burua haitean identifikatu ditzaten, eta, bestetik, afro-amerikarrak ez direnei ere identifikazio-lan bera egin dutelako itxaropena eskaintzen die (Lanser, *“Unspeakable Voice”* 2).


Morrisonen literatura-lanen helburu nagusietako bat da komunitate afro-amerikarraren ezaugarriak zabaltzea eta gordetzea. Hori lortzeko, Morrisonek afro-amerikarren bizitza, sinesmenak eta ametsak deskribatzen eta aztertzen ditu. Istorioek tradiziozko literaturak baztertu dituen ahozketasunaren eta folkloreak usaina dute, eta izan dituzten AEBko zurien jarrera zapaltzailea salatzen dute. Ikuspegi horretatik, **literatura** zer den **birdefinitzea** beharrezkoa da, Morrisonen ustez. Literatura horrek afro-amerikarren beharrei erantzuten die, eta, horrez gain, afro-amerikarrak ez diren irakurleei baztertutako kultura irakatsi.

Zein da Morrisonen literatura-lanen gai nagusia?

Morrisonen literatura-lanek afro-amerikarrek sufritutako esklabotza eta zapalkuntza dute oinarrian. Salaketa horretan afro-amerikar politikari eta artista ugari aritu izan dira. Hala ere, sistema horiek deskribatu baino, Morrisonek nahiago du pertsonaien **esperientzia** eta **barne-munduak** aztertu. Arreta gizabanakoan jartzeak posible egiten dio sistemaren handitasunean desagertzen diren pertsona "txikietan" sakontzea. Pertsonaia horiek emakume afro-amerikarrak izaten dira sarri. Afro-amerikarrek sufritutako arrazakeriari generoarekin loturiko bazterkeria gehitu behar zaio emakumeen kasuan. Bizitako esperientziatik abiatuz, idatzitako lanetan Morrisonen ahots politikoa ozenki entzuten da arraza eta generori lotutako gaietan (Lanser "*Unspeakable Voice*" 4).

2. Literatura natibo amerikarra

"Indiarren herrialdetik idaztea eta Martetik idaztea oso antzekoa da. Martetik kanpora ia inork ez daki bizitza nolakoa den Marten, eta gainera, gehienek uste dute bizitzarik ere ez dagoela. Bizitza egon badagoela onartzen duten horiek bakarrik pelikula zaharretan, telebistan, irratsaioetan, entzute handiko eleberrietan, zelula bakarreko izakietan edo duela milioika urte gertatu zela pentsatzen dute." (Allen, "A *Funny Thing Happened...*" 4)



Paula Gunn Allen-en goiko hitzek ironiaz laburbiltzen dute AEBko irakurleek duten ezagutza falta. Hitzok adierazten dute Allenek idatzitako literatura-lanak eta, orokorrean, natibo amerikarrek idatzitakoak ezagutu ere egiten ez dituztela AEB. Kritikaria eta idazlea da Allen, eta haren ustez, hiritar zurien eta natibo amerikarren artean dagoen distantziak bakarrik azaldu ditzake argitaratutako lehenengo lanek jaso zituzten iruzkinak. AEBko irakurleen gehiengoari guztiz **arrotza** egiten zitzaion natibo amerikarrentzat **agerikoa** eta egiazkoa zena, eta horregatik, azalpenik ere behar ez zuena.

Allenek egoera onartu egin zuen eta **saiakerak** idazteari ekin zion. Jendearen ezjakintasunak eragindako haserreak bultzatu zuen idaztera. Hortaz, saiakeretan **natibo amerikarren ikuspuntua** erakusten eta frogatzen ahalegindu zen. Arraza zuriz besteko AEBko hiritarrak izateagatik ikusezinak ziren natibo amerikarren mundua deskribatu eta ezagutarazi zituen Allenek. 1973 eta gero idatzitako poesiak, fikzioak eta saiakerek dozena bat liburuki betetzen badituzte ere, 1986an argitaratutako ***The Sacred Hoop: Recovering the Feminine in American Indian Traditions*** (*Uztai sakratua: Ameriketako indiar tradizioko emakumezkoa berreskuratzen*) artikuluagatik da ezaguna Paula Gunn Allen.

Idazterakoan, Allenek **bi irakurle mota** hartzen zituen kontuan: irakurle natibo amerikarra eta natibo amerikarra ez zena. Lehenengoentzat idazten zuen natibo

amerikarren pentsamolde propioa zerk sortzen zuen azaltzeko eta **gogorarazteko**. Guztia ezin adieraz zezakeela jakin arren, ezagutzen zuen jakintza behintzat zehaztu egin nahi zuen. Natibo amerikarrak ez ziren irakurleei zuzendutako lanek agerian utzi nahi zuten jakintza eta errealitate zuriak kultura natibo amerikarra baztertu egiten zuela. Beraz, bi helbururekin idazten zuen Allenek: kultura propioaren aberastasuna gogoratu nahi zien ahaztu edo baztertu egin zuten natibo amerikarrei; eta natibo amerikarrak ez ziren iparramerikarrei kultura hura bizitza amerikarraren berezko atala zela **irakasteko** idazten zuen.

Paula Gunn Allen 1939an jaio zen Cuberon (Mexiko Berrian), Laguna Pueblo ondoko herrian, eta 2009an hil zen Fort Bragg-en, Kalifornian. Ama Laguna-Sioux-a izan zuen eta aita libanoar-amerikarra, baina txikitatik natibo amerikarrekin identifikatu zuen bere burua, auzokideak baitzituen. Ingeles filologia ikasi zuen lehenengo eta, gero, sormen-idazketari buruzko masterra egin zuen Oregon-eko Unibertsitatean. Azkenik, **doktorego** titulua lortu zuen natibo amerikarren ikasketetan. Ibilbide horrek beste natibo amerikarrak baino **posizio abantailatsuagoan** jarri zuen Allen,.

Doktoretzari dagokionez, hasieram, ez zuen izan ikasketa natibo amerikarrak egiteko asmorik, baina aurretik ezarritako ezagutzen kontra jarduteak bultzatu zuen doktoretzara. Mexiko Berriko Unibertsitatean sortu berri zen natibo amerikarren ikasketei buruzko programan irakasle aritzea lehenengoz eskatu ziotenean entzun zion irakasle bati natibo amerikar literaturarik **ez zegoela**. Kontrakoa frogatzeko ikerketa sakonaren emaitza izan zen doktoretza.

Ordutik, Allenek lortu zuen posizio akademiko abantailatsutik, gogor jardun zuen unibertsitatean zegoen **hutsunea betetzeko**. Ibilbide horretan ikerketa zein sormena, **teoria** kritikoa zein idatzizko **literatura** landu zituen. Beraz, Allenek unibertsitatetik bertatik abiatutako ikerketa eta sorkuntza erabili zituen unibertsitateek eragindako natibo amerikarren desagerpenari aurre egiteko.

Historia

XVI. mende amaieran hasi ziren **natibo amerikarren eta europarren** arteko harremanak. Harreman horiek onak izan ziren lehenengo iritsi ziren Espainiarrekin. Egungo Mexiko eta AEBko hego-mendebaldea konkistatu ondoren hasi ziren jatorrizko bizilagunak esklabo gisa hartzen. XVII. mendean, frantziarrak eta holandarrak iritsi ziren, eta, azkenik, britainiarrak. Ipar-europarrok natibo amerikarren laguntza behar izan zuten lurralde berrian bizirauteko. Horregatik, hartu-emanak onak izan ziren neurri batean. Hala ere, denborak aurrera egin ahala, europarrek **lurra** bera bilakatu zuten **ondasun preziatua**, bizimodua eta aberastasuna ziurtatzen zituelako. Lurraren jabetzak eragin zituen natibo amerikarren **jazarpena**.

1630ko hamarkadarako lur-egarriak bultzatutako europarrek erlijioa eta kultura inposatu zuten. Horrez gain, Europatik eramandako gaixotasun berriek (baxtanga, sifilia eta gripea) ondorio larriak ekarri zituzten. Adierazgarriak dira hurrengo datuak: Europarrekin kontaktua izan aurretik, natibo amerikarren biztanleria 3 milioi eta 12 milioi pertsonen artekoa zela uste da (600 bat talde ezberdinetan bizi ziren eta kultura, hizkuntza eta bizimodu ezberdinak zituzten). 1900. urterako 237.000 biztanlera nurriztu ziren AEBn bizi ziren natibo amerikarrak. Mende gutxi batzuetan, beraz, natibo amerikarren **desagerpen kulturala** ez ezik **fisikoa** ere ekarri zuten Europarrek.

AEBko gobernuak ezarritako politiken helburua natibo amerikarrak **europar kulturen gizarteratzea** izan zen. Politika horiek gogortu egin ziren gerra zibilaren ostean (1861-1865). Lurren gehiengoa gobernuari ematera behartu zituzten tribuetako buruak eta mantendutako zati mugatuetan, hau da, erreserbetara zokoratu zituzten. Gainera, sinatutako itun ezberdinek natibo amerikarren seme-alabak gobernuak sortutako “indiar eskoletara” joatera derrigortzen zituzten, gurasoek lurren jabetza lortzeko aukeraren trukean.

“**Indiar eskola**” edo erreserba barneko eskolen helburua natibo amerikarren kultura ezabatzea eta kultura anglosaxoira asimilatzea zen. Eskolak ezarri zirenean, tribuen arabera banatu zituzten ikasleak irakasle natibo amerikar gutxi batzuen laguntzarekin. Banaketa horrekin, ikaskuntza giro atseginago eta

kulturalki esanguratsuago bat ahalbidetu nahi izan zuten. Hasierako eskola horiek, hala ere, gutxi iraun zuten. Tribuen arabeko banaketa eginez, amerikarrek inposatutako kultura errazago onartuko zutela uste zuten eskoletako zuzendariek eta irakasleek.

AEBko gobernuaren ahaleginak ahalegin, natibo amerikarren **asimilazio** maila **baxua** izan zen. Hori ikusita, AEBren hurrengo ahalegina natibo amerikarren seme-alabak erreserba kanpoko barnetegietara bidaltzea izan zen, Natibo Amerikarren Gaien Kontseiluaren (*Bureau of Indian Affairs*) babesarekin. Barnetegiotan tribu ezberdinetako haurrak nahastu egin zituzten. Ondorioz, irakasleentzat zaila zen **tentsio linguistiko eta historikoak** gainditzea eta ikasgeletan giro ona sortzea. Are gehiago, barnetegietan irakatsitako ingeles hizkuntzagatik eta kultural anglosaxoiagatik interesa erakustea ere lan gogorra izaten zen.

Barnetegiarten artean, Carlisle eskolaren kasua da argigarria. Barnetegia Pennsylvania estatutako izen bereko herrian zegoen kokatuta eta hango zuzendaria izan zen Richard H. Pratt-ek hurrengo aldarrikatu zuen: “**Natibo amerikarra hil, eta salbatu gizona**”. Hitz horiek modu gordinean laburbiltzen dute barnetegi sistema, eta agerian uzten dute, mendeetan zehar, AEBko gobernuaren politikak natibo amerikarenganako erakutsi zuten jarrera.

Paula Gunn Allenek argi ikusten du XIX. mendean zabaldutako barnetegiaren **hezkuntza** ereduak gaur egungo natibo amerikarren artean **ondorio latzak** eta **iraunkorrak** izan dituela. Horrela dio “[...] beraien hizkuntzan hitz egitea debekatzen duen praktika amerikarrak komunitate bateko partaidetza sentimendutik **isolatzen** ditu natibo amerikar haurrak, edo, kasurik onenean, beren burua osotasunean hautematea apurtzen du” (Allen, “*The Sacred Hoop ...*” 6). Allenek artikuluan azpimarratzen duen bezala, azken mendeetan indarrean jarritako hezkuntza ereduak natibo amerikarren jarrera, balio eta sineskera paganoekiko lotura etetea bilatu zuten.

Idazleak argudiatzen duenez, iparramerikar zuriek uste zuten natibo amerikarrek ondasun kulturala ahazteko biderik onena ingeles hutsean hitz egin araztea zen. Aldi berean, Allenen esanetan, iparramerikar zuriek uste zuten natibo amerikarrek hizkuntzan propioan hitz egiteak ezinezko egiten zuela kultura zurira asimilatzea. Uste horien aurka, Allenek salatzen du ustezko prozesu “zibilizatzailea”ren izenean, **jatorrizko hizkuntza debekatzeak** eta **atzerriko hizkuntza inposatzeak** natibo amerikarrak **baztertzea**, **bakartzea** eta **banakatzea** besterik ez zuela lortu.

XX. mendean, 60ko hamarkadarako gobernuak bultzatutako hainbat “Ezabatze politika” zirela medio, 61 tribu hondaturik zeuden. Natibo amerikarren erreserbei zuzendutako garapen proiektuak, maileguak eta laguntza federalak eten egin ziren. Behin betiko “ezabatze politiken” mehatxuei, eta erreserba barruan zein kanpoan bizi zituzten egoera latzei aurre egiteko sortu zituzten lehenengo natibo amerikarren kolektiboak. Gainera, natibo amerikarren nazioarteko biltzarra sortu zuten eta hainbat lider berri sortu ziren zerbitzu militarrean zurién politikan esperientzia jaso ondoren.

60ko hamarkadaren erdialdean hasi zen **abertzaletasun kulturalak** bultzatutako **aktibismoa** AEBn, baita natibo amerikarren artean ere. Natibo amerikarren eskubideen funtsen arabera (*The Native American Rights Fund*) antolatu zituzten tribu ezberdinak. Helburua lurak erreklamatzeko eta aitorten federala lortzea zen. Horrezaz gain, funtsek bete gabeko tratatuak, natibo amerikarren gaien kontseiluko agenteen ustelkeria, eta berrantolaketa legeen batzordeen bidegabekeria azaleratu zituzten. Gai horiek salatzen jardun zuten, baita ere, Natibo amerikarren gazte kontseilua eta Natibo amerikarren mugimendua. Erantzun gisa, jatorrizko **tradizioari begirunea** zioten politikak proposatu zituzten eta **giza eskubideak errespetatzea** aldarrikatu zuten.

Natibo amerikarren literatura

Literaturari dagokionez, **1969**an Navarre Scot Momaday-ren ***House Made of Dawn*** (*Egunsentizko etxea*) eleberriak **Pulitzer** saria jaso zuen. Paula Gunn Allenen esanetan natibo amerikar **idazleen existentzia** bera sari horrekin dago

lotuta. Urteek aurrera egin ahala, existentzia hutsa gainditu eta “gutxiengo literatura” izendatutako horretan barnebiltzera igaro dira idazle natibo amerikarren lanak. Allenen ustez, izendapen murriztaile horretatik irtetea zen XX. mende bukaerarako lortu behar zena. Idazleak “zapalduen lorategi” (Allen, “*And then Twenty Years Later ...*” 3) izena eman zion **gutxiengo literaturari**, eta izendapen hori zen hain zuzen ere **gainditu** behar zena.

Allenen iritziz, beste lorpen bat da onartzea natibo amerikarren literaturak ez duela mendebaldeko literaturaren antzik. Tradizio natibo amerikarrak unibertsoari buruz dituen sinesmenak dira ezberdintasun horren jatorria. Eta ezberdintasun horrek dakar natibo amerikarrek bizitako errealitatea eta mendebaldeko herritarrek bizitakoa berdina ez izatea.

Allenen ustez, errealitateen ezberdintasuna izan da natibo amerikarrak ez diren ikerleak zeharo nahastu izan dituenak. Mendebaldekoak ez diren literaturen azterketa arazo iturri izan da AEBko kritikaren tradizioan. Adituek ikuspuntu propioetik aztertu izan dute arrotza egiten zaien literatura, natiboen ikuspuntua kontuan hartzeko gai izan gabe. Oinarrizko akats horrek eragin du natibo amerikarren literatura landugabea, basatia eta hurren mailakoa dela adieraztea. Kultura ezberdinen berezitasunak kontuan hartu nahi ez dituzten azterketen ondorioak dira horiek.

Badago aldea 60ko hamarkadako eta gaur egungo natibo amerikar literaturaren artean. Natibo amerikarren loraldiko klasikotzat hartzen dira **N. Scott Momaday**ren *House Made of Dawn* (*Egunsentizko etxea*), **James Welch**-en *Winter in the Blood* (*Negua odolean*), **Leslie Marmon Silko**-ren *Ceremony* (*Zeremonia*), eta **Louise Erdrich**-en *Love Medicine* (*Maitasun sendagaia*) eleberriak. Natibo amerikarren tribu-identitateari eta bizitzari buruzkoak dira literatura-lan horiek, gehienbat. Natibo amerikarrek erreserba barruan eta inguruan duten bizitza gogorra eta txiroa erakusten dute. Loraldi hasierako eleberriek, beraz, natibo amerikarra izateak zer zekarren deskribatzen eta salatzen zuten.

Azken hamarkadetan, gai eta pertsonaia mota berriak deskribatzen dizkigute idazle zahar eta berriek. **60ko** hamarkadako eleberriek **tribu-identitatea** deskribatzen bazuten, beranduagoko eleberrietan pertsonaiak erreserbara itzuli ezinik erakusten zaizkigu komunitate zuriaren barruan arrakasta izan ondoren. Hau da, azken literatura-lanek **kultura biko identitatea** izatearekin loturiko dilemak aurkezten dizkigute, eta baita, bitasun horrek sortutako ezinegon eta nahasmena aztertu ere.

“Literatura natibo amerikar berriaren ezaugarri nagusietako bat **alienazio** prozesuari buruzko ardura da” (Allen, “*A Stranger in my Own Life ... I*” 2). Allenek argi dauka gaurko natibo amerikar literaturan hain presente dagoen alienazioa literatura-baliabide hutsa baino gehiago dela. Hil ala bizikoa da identitate mestizoa izateak egunerokotasunean duen eragina. Eragin hori atzematen da norberaren nortasunaren garapenean eta baita besteeikiko harremanak definitzeko orduan ere. Allenek ideia hori azpimarratu egiten du adieraziz alienazioa bihurtzen dela natibo amerikarren idazlanen gai nagusia, sinboloa, pertsonaien ezaugarria, gertakizunen iturria eta egituraren ardatza.

Identitate mestizoaz gain, Paula Gunn Allenek defendatzen du generoak duen garrantzia ukaezina dela norbanakoaren nortasuna garatzeko orduan. Hain zuzen ere, Allen ezaguna egin da literatura natibo amerikarraren irakurketa eta **azterketa feminista** egiteagatik. Natibo amerikarren tradiziozko balio, kultura eta sinesmenak ikuspuntu feminista batetik berrikusten eta birdefinitzen aritu da idazlea. Gainera, Allenek uste du beharrezkoa dela natibo amerikarren tradizioan emakumeek zuten presentzia eta garrantzia berreskuratzea. Kritikari feminista gisa, Allen ziur dago natibo amerikarren artean gertatzen diren genero indarkeriak, bortxaketak eta desagerpenak mendebaldeko kulturen egitura patriarkala barneratzearen ondorio direla.

Erdrichen Literaturaz

Unitate honetan landuko ditugun Louise Erdrichen eleberriak **justizia sozialari** buruzkoak dira sarri. Hala ere, idazleak kontuan hartzen du posible dela irakurleak justizia horretan interesik ez izatea. Horregatik, Erdrichek idaztankera

lirikoan azaltzen ditu axola zaizkion gaiak. Hierarkiarik gabeko literatur paisaian, eleberriek pertsonaia ugari biltzea eta pertsonaia horien guztien ahotsak entzutea da idaztankera liriko horren ezaugarria.

Protagonista nor den erabakitzea zaila izan daiteke literatura natibo amerikarra irakurtzera ohitu gabe dagoenarentzat. Natibo amerikarren tradizioan, norbanakoari beharrez, **komunitateari** ematen zaion garrantziagatik mantentzen dira pertsonaiak maila berean. Hortaz, norbanakoak eta norbanakoaren sentimenduek eta nahiek ez dute lehentasunik. Natibo amerikarren komunitate-sisteman, lehentasuna taldeak dauka. Erdrichek tradizio horri jarraipena ematen dio eta irakurlearen eskuetan uzten du istorioen arteko loturez hausnartzeko ardura.

Natibo amerikarren iragana markatu eta gaurko errealitatea definitzen duten **gertaera historikoak** aurkitzen ditugu Erdriehen eleberrietan. Han-hemenka agertzen dira Louis Riel metis-ak gidatutako erresistentzia mugimenduak, europarren inbasioak, natibo amerikarren lintxamenduak, eta emakume natibo amerikarren bortxaketak eta hilketak. Allenek aipatu bezala, zaila egiten zaio Erdrichi, arraza zuriz besteko emakume gisa, eguneroko bizitzan topatzen dituen gaiak eleberrietan ez sartzea.

Unitate honetan ikusiko ditugun eleberri biren gaineko **informazio gehigarria** da hurrengoa. Informazio horrek lagungarria izan nahi du pasarteak eta irakurketa gidatua lantzeko orduan. Gomendagarria, hala ere, eleberriak osotasunean irakurtzea da. Segidan beraz, *Love Medicine (Maitasun sendagaia)* eta *The Plague of Doves-i (Uso-izurriteari)* buruzko lerro batzuk irakurriko dituzun liburuen kontraletatik ekarrita:

Maitasun sendagaia

“Louis Erdrichek idatzitako eleberri-segida natibo amerikarraren lehenengo ale hau sekulakoa da. *Maitasun sendagaiak* bi familiaren, Kashpaws-tarren eta Lamartines-tarren, istorioa kontatzen du. Erdrichek hain berezkoa duen estilo poetikoan eta boteretsuan idatzita dago, eta belaunaldi ugari biltzen dituen gizon

eta emakume indartsuen argazkia da. Haserreak, desirak, eta maitasun sendagaiak harrapatuta dituen drama ahaztezina da.” (2005)

Uso-izurritea

“1911n, hilketa anker batek hainbat familiaren bizitza aldatzen du Pluto-n, Ipar Dakotan. Plutok buztanleria zuria du eta chippewa natibo amerikarren erresebaren mendebaldeko mugan dago. Urteak aurrera doaz, eta hiltzaile eta biktima haien ondorengoak elkarrekin ezkontzean nahastu egiten dira. Odol nahasia duten belaunaldi berriak hazten dira iraganean gertatutakoa jakin gabe. Hala ere, gutxinaka-gutxinaka ezagutuko dute haien desirak, patuak eta sekretuak markatuta daudela indarkeriarekin eta injustiziarekin. Giza-tapiz aberatsa eta kontakizun boteretsua sortzen du Erdrichen prosa dotoreak eta irakurlea eleberri bikain honen bukaera harrigarria erakartzen du. (2010)


Irakurketa gidatua

Lehenengo irakurketan, Louise Erdrichen *Maitasun sendagaia* istorio bilduma dirudi. Hala ere, egitura bateratua duen eleberria da. Eleberria bukatzean, sumatzen da, istorioaren osotasunarekin batera, barne egitura ere badagoela. Eleberriari hasiera ematen dion istorioak, ***The World's Greatest Fisherman***-ek (*Munduko arrantzalerik onenak*), Nelson Algren fikzio saria irabazi zuen 1982an. Istorio hori bihurtu zen Erdrichen *Love Medicine*-en (*Maitasun sendagaiaren*, 1984) oinarria eta abiapuntua.

Gerora, Erdrichek *Love Medicine* tetralogia baten abiapuntua bihurtu zuen *The Beet Queen* (1986), *Tracks* (1988), eta *The Bingo Palace* (1994) eleberriekin batera. Lau eleberriek osatutako segidak Ipar Dakotako Ojibwa erreseban edo inguruan bizi diren familia natibo amerikarren eta komunitate zurien arteko harremanak lantzen ditu.

3. Literatura Txikanoa

“Mugako emakumea naiz. Bi kulturen artean hazi nintzen, mexikarra (natibo amerikarren eragin handiarekin) eta anglosaxoia (jatorrizko lurraldean kolonizatutako kide gisa). Bizitza osoan, Texas-Mexikoko muga horretan zangalatrau egon naiz, eta baita beste muga batzuetan ere. Ez da bizitzeko toki erosoak kontraesanak dituen. Gorrotoa, haserrea eta esplotazioa dira paisaia horren ezaugarri nagusiak” (Anzaldúa hitzaurrea)



Kritikagintza txikano feministan aitzindaria izan zen **Gloria Anzaldúa**-renak dira hitz horiek eta ederki

laburbiltzen dute zeintzuk diren txikano feministen **barne gatatzak**. Testu horrek agerian uzten ditu, baita ere, AEBko historian txikanoek talde bezala sufritu duten egoera latza. Izan ere, Mexikoko eta AEBko gobernuek eremu geopolitiko bihurtu dute muga naturala. Lenengoak Río Bravo eta bigarrenak Rio Grande izendatutako ibaiaren banaketan eraiki dute muga geopolitiko hori. Lotzen dituen ertz bien banaketa bortitz horrek nortasun txikanoa definitzen duten **barne-mugen haustura** ere islatzen du. Agian, gainditzen errazagoa da izugarri militarrik dagoen kanpo-muga hori, nortasun txikanoa eraikitzen duten barne mugak gainditzea baino.

Gloria Anzaldúa Haelingen-en, Texas-en jaio zen 1942an eta Santa Cruz-en, Kalifornia-n, hil zen 2004an. **Borderlands/La Frontera** (Mugak) dauka lanik garrantzitsuena eta saiakera eta olerkia nahasten ditu. Txikano, aktibista eta idazle gisa izandako bizipenetan sustraitutako lana da **Borderlands/La Frontera**, eta era esanguratsuan jartzen ditu zalantzan identitatearen inguruan ditugun aurriritziak.

Nortasuna txikano argien azaltzen duen ezaugarria da **identitateak ez direla bakarrak**; aitzitik, identitateak anitzak eta aldakorak direla. Txikanoen kasuan, identitate mexikarra, anglosaxoia eta natibo amerikarra biltzen ditu Anzaldúak,

baina azpimarratu egiten ditu baita genero, arraza eta sexualitateari dagozkien identitateak ere biltzen dituela. Anzaldúaren ustez, barne muga guzti horiek erdibituta uzten dute gizabanakoa, eta bizitzan zehar etengabeko talkan egongo diren barne mugak izango dira. Nortasun txikanoak agerian uzten duena da edonor identitate bakarrez definitzeak murriztu eta isolatu egiten gaituela.

Anzaldúak **barne mugak** muga fisiko argi baten bidez sinbolizatzen ditu, hau da, **AEBn eta Mexikoren arteko muga**. Anzaldúa bera muga geopolitiko horretatik hurbil jaio eta hazi zenez, berebiziko itzala izan du haren identitate txikano feminista definitzeko. XIX. mendean ezarritakoa izanik, indigenek Ameriketako historian lehenagotik jasandako bortizkeria kolonialaren adierazlea da muga. Gaur egungo AEBko politikari so eginez gero, berebiziko protagonismoa hartzen duen muga ere bada XXI. mende honetan.

Historia

1521ean menderatu zuten espainiarrek Mexiko **Hernán Cortés**-en agindupean eta Espainiako Carlos I erregearen izenean. Hasieratik saiatu ziren menderatzaile espainiarrak **nortasun indigenak ezabatzen**, hala ere, sarraski haren ondarea, desagerpena baino, mestizajea izan zen. XIX. mendean, mestizajea areagotu egingo zen Europatik iritsitako etorkinekin.

Hurrengoa da kontuan hartzekoa: 1848. urtea baino lehenago 80.000 herritar baino gehiago bizi ziren Mexikoko iparraldeko lurraldeetan. 1848an, Iparramerika eta Mexikoren arteko gerraren (1846-48) ostean **Guadalupe Hildagoko Ituna** sinatu zen. Hortaz, AEBko mugak hedatu baino lehenago Mexikoko biztanle izandakoak atzeritar bihurtu ziren haien jatorrizko lurraldeetan.

XIX. mendeko AEB berrian, **jatorrizko** mexikarrak **bigarren mailako hiritar** bihurtu ziren. Mexikar horiei, gainera, Mexikoko migratzaile talde bat gehitu behar zaie: guda zela eta Mexikotik ihes egin nahian Kalifornia, Texas eta Mexiko Berrira joan zirenak. Esandakoaz gain, AEBn modu irregularrean langile gisa sartu ziren beste migratzaile batzuk ere batu zitzaizkien garai hartan.

Migratzaileen joan-etorriek jarraitu egiten dute gaur egun eta ez dira orain arte aipatutako lurraldeetara soilik mugatzen. Hala ere, historikoki arrunta izan den joan-etorri hori **kriminalizatu** egin da AEBko gobernuaren erabaki politiko eta interes ekonomikoak direla eta. Ondorioz, gatazka gune bihurtu den muga saihestu nahian, hainbeste kontrolatu gabeko bide arriskutsuagoak hartzen dabiltza migratzaileak. Zoritxarrez, AEBko bidean hil diren haur, emakume eta gizonen kopurua izugarri hazten jarraitzen du munduaren begirada hotzaren aurrean.

Goian aipatu bezala, historian zehar natibo amerikarren, mexikarren eta txikanoen menderatzaile batek ere ez du lortu txikanoen sustrai indigenekiko lotura estua ahultzerik. Gainera, Anzaldúaren hitzek adierazten duten bezala, **identitate txikanoa** sustraiekiko lotura baino gehiago da. **Mugen zeharkatze eta arrazen elkarketan** oinarrituta ere badago. Ildo horri tiraka eta 1960ko hamarkadako afro-amerikarren herri mugimenduaren bidea jarraituz, jatorri ezberdinetako hispano-amerikarrek ere haien eskubide-berdintasunen aldeko borroka antolatu zuten. Borroka horri txikanoek Mugimendua izena jarri zioten.

Jatorri mexikarra zuten iparramerikarren boteretze eta protesta etniko gisa identifikatu dute historialariek txikanoen Mugimendu hori. Hala ere, **Mugimendua askotarikoa** zen eta hainbat kolektibo biltzen zituen bere baitan: eskoletan pairatzen zuten diskriminazioa salatze mugimendua, Vietnamgo gerraren kontrako gazte-mugimendua, nekazarien eskubideen aldeko mugimendua, eta *La Raza Unida* alderdia sortuz botere politikoa lortu ahal izateko mugimendua.

Txikano deituraren hedapenak 1960-70. hamarkadetako Mugimenduak izandako arrakastarekin dauka zerikusia. Hortaz, terminoak **jarrera politikoa** adierazten du, eta erabiltzailearen konpromiso politiko eta kulturala islatzen du. Txikano terminoak zehatzago, AEBn jaiotako eta/edo hazi diren jatorri mexikarreko hiritarrei egiten die erreferentzia.

Batzuen ustez, txikano hitza Mesoamerikako Mexica (Meh-sheik-a) tribu indigenetatik dator; beste batzuek diote, AEBko anglosaxoiek hego-

mendebaldeko mexikar-iparramerikarrak gutxiesteko erabiltzen zutela. Azken jarrera horri aurre egiteko, aktibista txikanoek deitura berreskuratu, eta esanahi positibo eta politikoz jantzi zuten.

Pentsamendu txikanoa

Nortasuna txikanoak berriaz baztertzen du AEBko gizarteak benetako iparramerikarra izateko Mexikoko ondarea ukatu behar izatearen ustea. Hau da, txikano bezala identifikatzeak mexikarrak eta iparramerikarra dela defendatu eta ospatzen du. Identitatea eta azalaren kolorea oso loturik daude txikanoentzat. Adibidez, bide horretatik adierazten du Gloria Anzaldúak “Kontzientzia mestizoa” artikuluan identitate mestizoa garrantzitsua dela txikano identitatean. Arrazaren mugak gurutzatu dituzten pertsonen topagunea sortzen du identitate txikanoak.

Txikano **feministek kritika** esanguratsuak egin dizkiote **Mugimenduari**, eta, oro har, mexikar-iparramerikar kultura patriarkalari. Emakumeen beharrak eta kezkak tradiziozko familia-ideologiaren menpe jarri dituztelako egin dituzte kritikak. Beste mugimendu batzuei ere –emakumeen mugimenduari eta gay/lesbianen mugimenduari– erronka egin diete txikano feministek. Ohartarazi dituzte mugimendu horietan ere barneratuta daudela arrazakeria, sexismoa eta homofobia. Ondoren datozen hitzekin argi eta ozen adierazi zuen Anzaldúak txikano feminista ugarik 60ko hamarkadaz geroztik ahopeka ziotena:

“... Beraz, ‘etxeak’ nire gorputzeko kartilago guztiak iragazten baditu ere, etxera joateko beldur naiz ni ere. Mexikarrak ez direnek nire arraza eta kultura erasotzen dituztenean defendatuko baditut ere, ezagutzen dut nire kulturaren ezinegona. Nire kulturaren ezaugarri batzuk gaitzesten ditut, bere emakumeak nola elbarritzen dituen, astemeen antzera, gure kontra egiteko gure indarrak nola baliatzen den, asteme hutsak apaltasuna duintasunez daramatenak. ... Gorrotatzen dut nire kulturak gizonen matxo karikaturak sortzen dituztenean. Ez, ez ditut sinesten jaio nintzen tribuko mito guztiak. [...] Baina ni babesteko zauritu nauten alde horiek ez ditut goretsiko”. (Anzaldúa 43-44)

Cisnerosen literatura

Anzaldúak norberaren **etxeak**, hau da, norberaren kulturak biltzen dituen **esanahi kontrajarriak** azpimarratzen ditu. Alde batetik, seguru eta babestuta sentiarazten gaitu etxe horrek, baina, segurtasun eta babesak ekar lezake erasorik bortitzena, etxekoa baita norberaren ahultasunak ongien ezagutzen dituen. Etxeak hezten gaitu eta, etxeak definitzen du gure etorkizuna. Etxe bateko gela bakoitzari funtzio bat ematen zaion gisan, norberaren kulturak definitzen ditu nortasunaren alde ezberdinak nolakoak izan behar duten. Hortaz, etxeko hormek kanpoan dagoenetik babes gaitzakete, baina baita isolatu ere.

Sandra Cisnerosen *Etxea Mango Street-en* lanean bikain aztertu daitezke Anzaldúak deskribatutako **etxeak** identitateen sorkuntzan duen eragina eta etxe horrek hartzen dituen esanahiak. Itxuraz hizkuntza sinple eta argazki literario soilak dakartzan literatura-lan hori aukera paregabea da ikasleekin hizkuntza, herria, arraza, generoa, klase soziala eta identitatea osatzen duten ezaugarriak eztabaidatzeko.

Cisnerosen *Etxea Mango Street-en* argitaratu zenean, obrak zituen formarengatik eta edukiarengatik literatura-eremu berri bat ireki zuen. Formari dagokionez, *Etxea Mango Street-ek* AEBko gizartearen marjinetatik hitz egiten zuen idazkera berri bat sortu zuen. Hori lortzeko, estilo erraz zein sakonean idatzi zuen Cisnerosek.

1980ko hamarkadan argitaratu zuen Cisnerosen *Etxea Mango Street-en* eta jarraian literatura txikanoaren mugimendu zabalago baten parte bilakatu zen. Beste idazle batzuekin batera osatu zuen mugimendu hori, **Lorna Dee Cervantes**, **Denise Chavez**, **Gloria Anzaldúa** eta **Cherrie Moraga**-rekin, besteak beste. Mugimendu horren barruan, Cisneros feminismo txikanoaren abangoargian kokatu zen *Etxea Mango Street-en* lanarekin eta, aldi berean, irakurleen gehiengora iristea lortu zuen lehenengoetariko idazle txikanoa izan zen.

Cisnerosen lanei buruzko ikerketak askotarikoak dira eta eztabaidak eragin dituzte. Batzuek aipatu egin dituzte gizonezko txikanoei eta kultura txikanoarri

buruzko deskribapenak. Beste batzuek exotizatzea eta esentzialismoan erortzea leporatzen diote (Haque, 2019)

Sandra Cisnerosen lanik ezagunena *Etxea Mango Street*-en bada ere , beharrezkoa da **beste lan bikain batzuen** gainean zertxobait jakitea. Segidan beraz, *Woman Hollering Creek and Other Stories*-i (*Lloronaren erreka eta beste istorio batzuk*-ri) eta *Loose Woman*-i (*Kaskarinari*) buruzko lerro batzuk irakurriko dituzu liburuen kontraletatik ekarrita:

***Etxea Mango Street*-en**

“Klasiko bihurtu den *bildungsroman* honek sei milioi kopian gora saldu ditu mundu osoan eta AEBko lehen hezkuntzan, institutuetan eta unibertsitateetan irakasten diren curriculumen parte da. Irudi txundigarriak Chicagoko auzo latino txiro batean bizi den Esperanza Corderoren haurtzarora eta nerabezarora deskribatzen ditu eleberriak. Esperanzak edertasun krudelez beteriko auzoa aurkezten digu, eta barnean duen gatazka hitzetan islatzen du. Auzoko muga fisikoek, eta azalaren koloreak eta generoak jazartzen dizkioten muga soziopolitikoaren artean ito nahi ez duen narratzailea da Esperanza.

Laburbilduz, Esperanzak bihurtuko den emakumearen sortzaile bakarra izan nahi du. Horregatik, tinko eusten dio, izenak adierazten duen bezala, bizimodu hobe bat izateko esperantzari. Liburuaren beraren atzealdeak dioten bezala *Etxea Mango Street*-en aho-batez goraipatu dute kritikariek, eta grina berberarekin maitatu egiten dute Cisnerosek idaztean gogoan zituen auzo txiroenetako ikasleek, haren gurasoek eta aitona-amonek”.

Woman Hollering Creek and Other Stories (Lloronaren erreka eta beste istorio batzuk):

“Laudorio ugari jaso dituen istorioen bilduma da honako hau. Istorioek sorta aberatsa eskaintzen dute eta berebiziko indarra dute. Istorio horietan aurkezten diren pertsonaiek Mexikoko mugaren alde bietako bizimodu bizia eta aberatsa aurkezten diote irakurleari. Batetik, hamaika urteko neskatok

ume batek bakarrik jakin ditzakeen sekretuak kontatzen ditu. Bestetik, hegan dabilen sorginak herria biribiltzen du egunsentia baino lehenago. Laburbilduz, istorio horietako emakumeen jakituria ikaragarria eta kutuna darien ipuinak eskaintzen ditu liburua". (1992)

Loose Woman (Kaskarina):

“Norteño’ musikaren bizipoza eta larunbat gaueko erromantizismo neurrigabea duten poema liburua da hau. Maitasunaren kataklismoa ospatzen du eta mexikar-iparramerikarren psikean dauden arrakalak definitzen ditu. *Kaskarina* lizuna eta introspektiboa da, erotikoa eta dibertigarria”. (1995)

Irakurketa gidatua

Etxea Mango Street-en eta gero Cisnerosek idatzi duen bigarren eta azken eleberria da *Karamelua*. Batzuetan benetakoa eta beste batzuetan fikziozkoa den sorlekuari buruzko eleberri bizia da, erritmo azkarrekoa eta erromantikoa. Luzaroan itxarondako eleberria biziki goraiatu dute nazioarteko kritikoek, adibidez *New York Times*-etik *Publishers Weekly*-ra, *The Guardian* edo *Kirkus Review* aldizkarietan. Kritikarien arabera, gertakari garrantzitsua izan da eleberri hau. AEB-Mexikoko mugaren alde bietan gehien irakurtzen den idazlearen ibilbide literarioarentzat izan da gertakari garrantzitsua, eta baita narratiba txikano berriarentzat ere. Kontakizun herrikoia kalitatezko literatura bihurtzeko gaitasunagatik, eta *Etxea Mango Street-en* eleberrian erakutsi bezala, literatura-generoen arteko mugak hausteagatik berezko gaitasuna aitortu diote idazleari.

Txikanoen eleberri autobiografikoa bereziki erabilgarria da haien identitatea ulertzeko. Sandra Cisnerosen *Carmelo (Karamelua)* eleberri autobiografikoa da eta belaunaldi anitzeko pertsonaiak biltzen ditu. Celaya "Lala" Reyes-ek kontatzen du familiaren historia. Haren gurasoak mexikarrak dira eta maiz egiten dute Chicagotik Mexikorako bidaia. Bidaia horrek hartzen du garrantzia handia pertsonaien garapena ulertu ahal izateko.

Bidaia sarri erabili izan da **bizitzaren metafora** gisa, eta eleberri honetan ere hala da. Chicagotik Mexiko Hirira udan egindako bidaietan gertatutako bizipenek AEBko zuriz besteko iparramerikarren barne bidaia ankerra islatzeko balio du eleberriak. Pertsonaiak Anzaldúak aipatutako muga fisikoetan eta barne mugetan dabilta nor diren definitu nahian eta mundura irteteen topo egin dituzten oztopoekin borrokan. Eleberri hau primerako adibidea da identitate mexikarra eta mexikar-iparramerikarrak aurrez aurre elkarrizketan jartzeko.


Eleberriaren metaforarik garrantzitsuenetakoa izenburuak berak aurkezten duena da, hau da, karameluak azalaren kolorea deskribatzen du. Literatur lan honek arraza eta gizarte klaseak jorratzen ditu, eta pertsonaia ezberdinek beren burua nola deskribatzen duten aztertzen du. Karameluaren kolore marroiak iluntasuna ala argitasuna adieraz dezake pertsonaiaren arabera. Metafora horri esker, koloreak eta klase sozialak gizakiaren balioa nola mugatzen duten ikusiko du irakurleak. Azken batean, mugen arteko eremuan mugitzen diren pertsonaiak dira eleberrikoak, barne gatazkak dituztenak. Hitz egiten duten mugako kokagunearen ondorioz, gehienetan kontrajarriak eta konplexuak dira beren burua definitzeko moduak eta beren identitate eta kulturarekiko sentimenduak.

4. Literatura afro-amerikarra

Hitz egitea ekintza arriskutsua eta ausarta dela dio **bell hooks** kritikari eta idazle afro-amerikarrak (hooks, “*Talking Back*” 1). Bizipen pertsonaletik abiatzen da hooks hitzak duen indarraren gaineko teoria feminista definitzeko. Emakume afro-amerikarrak ez direla inoiz isilik egon dio bell hooksek; aitzitik, etxean etengabe hitz egiten gogoratzen ditu senideak. Baina hizketaren izaera eta norabidea aldatu behar direla defendatzen du hooksek. Hau da, entzuleak erakartzeko moduko hizketa sortzea da emakume afro-amerikarren erronka.

Kritikari feministaren ustez, idazteak, **hitzak** paperean **azalarazteak**, **arriskuan** jartzen du idazlea. Horregatik deritzo hain garrantzitsua erantzun kritiko duina jasotzeari. Kritikek idazleengan izugarrizko eragina dutela azpimarratzen du bell hooksek. Kritika horien ondorioak are larriagoak dira zapal dutako komunitateko idazleak hitz egiteko ahalegina egiten duenean. Egiazko hizketa emakume afro-amerikarrentzat erresistentzia ekintza bat da, eta ez soilik sortzeko gaitasunaren adierazpena (hooks, “*Talking Back*” 4). Idazleak idaztean ausardiaz jokutzen du, eta idatzitakoa mehatxu ere bihur daiteke askotan. Menderakuntza politikoaren aurrean ahoskabe utzitakoen ekintza politikoa da, hooksen hitzetan, hizketa.

Idazle identitatea eraikitzeko bell hooks izengoitia bere gain hartu zuen Gloria Jean Watkins-ek. Hitz egitetik isiltzera bultzatzen zuten indarrei aurre egiteko eta indar horiek indargabetzeko, idazle-identitatea beharrezkoa zuela dio kritikariak. Amaren birramonaren izena da Bell Blair Hooks. Birramonak hizkera bizi eta ausarta omen zuen eta haren izena hartzean, birramonarenganako mirespena adierazten du. Izenaren **letra xeheek** birramonarengandik bereizten du kritikaria, eta baita idazle gisa duen **eginbide politikoa** erakutsi ere. Letra xeheen erabilerak emakumezko idazlearengandik arreta desbideratu egiten du idatzitako mezura bideratzeko.



Historia

Esklabotzak bi mende iraun zituen AEBn: XVII. mendetik XIX. mendera. Esklabotza baztertzeko, bizitza arriskuan jarri zuten esklaboek. Hartutako arrisku horren adibide dira AEBn gertatu ziren 250 inguru esklabo-matxinadak. Horretaz gain, hegoaldeko estatuetako baso eta mendietan, 50 bat komunitate sortu zituzten ihes egindako esklaboek eta libre jaiotako afro-amerikarrek (Jalata, *“Revisiting the Black Struggle”* 4). Esklabotzaren amaiera ofiziala Abraham Lincoln presidenteak sinatu zuen 1863ko urtarrilaren 1ean. Handik urte bira, 1865an, Batasunaren kontra zegoen Wilkes Booth aktoreak egin zuen Lincoln presidentea.

Esklabotza ofizialki bukatu bazen ere, gizarte zuriak, eta haien gobernu eta erakundeek jarraitu egin zuten komunitate afro-amerikarra kontrolartzen eta zapaltzen. **Jim Crow** legediak, adibidez, komunitate beltzaren eguneroko bizitza izugarri murrizten zuen. Lege horiek afro-amerikarren eskubide politiko eta kulturalak ukatzen zituzten. Legeon ondorioz, nagusitu ziren pobrezia eta eskolagabetasuna komunitate beltzean; izan ere, mende luze bitan indarrean mantendutako esklabotza sistemak eta oraindik indarrean zegoen arraza bereizkeriak oztopatzen zuten, zeharo, afro-amerikarren goraldia.

XX. mendean, **iparraldeko hiriak** esperantzarako paisaiak izan ziren afro-amerikarrentzat. Hiri haietan bizi ziren afro-amerikar askeek autolaguntza eta sendetasuna sustatzeko elkarte autonomoak ireki zituzten: elizak, eskolak, denda txikiak, komunikabideak eta kultura-etxeak ere sortu ziren han-hemenka. Askatasuna eta babes emozional eta intelektuala emateaz gain, lanpostuak ere eskaintzen zituen hiriak. Horren ondorioz, iparralderantz eta hirietarantz zuzenduriko afro-amerikarren migrazio indartsua gertatu zen.

Migrazio jendetsu horrek zeharo aldatu zuen komunitate afro-amerikarra: herrietan bizi ziren nekazari-esklaboak izatetik industria-lanetan aritzen ziren hiritarrak izatera igaro ziren. **Hiri-geografiak** ekarritako hurbiltasun fisikoak bultzatuta, elkarteak, kofradiak eta bestelako gizarte-taldeak sortu zituzten afro-amerikarrek. Hau da, esklabotza sistemak eta nekazal-eremuen geografiak

sakabanaturik mantendu bazituzten, iparraldeko hiriek elkarrengana hurbildu zituzten.

XX. mendearen lehen erdialdean afro-amerikar gehienak hirietara bizitzera joan ziren eta, bertan, langile-klasearen parte bihurtu ziren. Une hartara arte, hiritar aktibista eskolatu beltzak esklaboengandik urrun bizi ziren. Hirietarako migrazioarekin, aldiz, aditu eta aktibista haien hitzaldiek entzuleria aproposa aurkitu zuten iritsi berri ziren afro-amerikarren. Hiriko bizitzak eragindako sare sozialek, komunikabideek, garraioek eta teknologiek giro ezin hobea sortu zuten afro-amerikarren artean, aldaketa soziala ekarriko zuen aktibismoa pizteko.

Esklabotza-sistemak gizatasuna ere ukatzen zuen, eta horrek afro-amerikarren identitatean aztarna mingarriak eta iraunkorrak utzi zituen. Egoera horri erreparatuta, ukazina da norberaren **identitatea** definitzean **geografiak** duen garrantzia, iparraldeko hiriek posible egin baitzuten norbanakoaren identitateaz gain afro-amerikarren komunitate-identitatea askatasunean garatzea. Komunitate horrek kultura propioz eraiki zuen komunitatearen “etxea”.

“**Exe**” gisa ezagutzen dugun eremu semantikoa, bell hooksek ere aztertzen du. Izan ere, kritikariaren ikuspuntu feministatik, etxearen esanahia bera aldatu egiten da deskolonizatzeko eta erradikalizatzeko esperientziarekin. Etxeak duen indarra aldarrikatzen du hooksek eremu fisikotik harago doan kokagune gisa (hooks, *“Choosing the Margin ...”* 5): batzuetan, kanpoko gertakari eta usteengandik babesten gaituen lekua izan daiteke etxea; beste batzuetan, berriz, baztertu egiten gaitu eta etxeoengandik ere bereizita sentiarazi. Etxea ikuspuntu ugari eta aldakorrek ahalbidetzen eta sustatzen dituen tokia dela azpimarratzen du idazle afro-amerikarrak.

Iragana biltzea eta **oroitzapenak politizatzea** da bell hooksek bultzatzen duen beste ekintza bat, hau da, oroitzapenak modu kritikoan aztertzea eta biltzea ekintza politiko bihurtzen du hooksek. Idazleak proposatzen du oroitzapen mota horrek bakarrik egingo duela posible nostalgia oroitzapenetik bereiztea. Aktibista afro-amerikarrak azaltzen duenez, nostalgiak gauzak ziren bezala jarraitzeko

desira dakar eta desira hori alferrikakoa dela uste du; memoria politikoak, aldiz, oraina argitu eta eraldatzen du.

Gerra zibilaren aurreko afro-amerikar eskolatuek ere hainbat liburu, aldizkari, eta egunkari idatzi zituzten. Idatzi horiek, gerora, kultura-memoria eta herri-kontzientzia historiko beltza eraikitzen lagundu zuten; izan ere, aditu eta aktibista afro-amerikarrek esklabotzaren eta arraza bereizkeriaren aurka borrokatu ziren eta bizipen negatibo eta positiboak aztertu zituzten, baita AEBko sistema arrazista arbuiatu ere. Bereziki aipagarria da eskolatu haiek iraganeko kultura afrikarraren esperientzia biltzeko egindako saiakera gogotsua.

XX. mende erdiko mugimendu beltza AEBko apartheidaren eta kolonialismoren oposizio kulturala, intelektuala eta politikoa izan zen. AEBko gizarteak orduan ere afro-amerikarren espazio kultural eta historikoa ukatzen zituen: horrek oztopatzen zuen komunitate beltzak lor zezakeen hobekuntza soziala.

AEBko eskubide zibilen aldeko lehen mugimendua Richard Allen-ek sortu zuen 1830ean. Berrogei delegatu ezkutuan bildu ziren Philadelphian, Allenek horretarako dei eginda. Memorian mantendu da bilera hori egiteko bultzada Hezekiah Grice Baltimore-eko izotz-saltzaileak eman ziola. Philadelphiako bilera horretan sortu zen Biltzar Nazionalaren Mugimendua (*National Convention Movement*).

Afro-amerikarren aktibismoa aztertzean, Beltzen Aurrerapenerako Elkarte Nazionala (**NAACP**) aipatzea ere beharrezkoa da. NAACP izan zen erakunde nazional nagusia. Elkarte 1909an sortu zen eta oraindik ere lanean dihardu. NAACPek antolamenduari, kudeaketari eta lan-harremanei buruzko aholkuak eman zizkion mugimendu beltzari. Horretarako, ministroak, abokatuak, medikuak, irakasleak, sindikatuen antolatzaileak eta beste zenbait ekintzaile kontratatatu eta prestatu zituen. Afro-amerikarren desboteretzeari eta arraza-bereizkeriari aurre egiteko, borroka izugarria egin zuen erakundeak zuzenbidearen alorrean.

NAACP elkarteaz gain, egon ziren eskubide zibilen aldeko mugimenduan toki berezia merezi duten pertsonak ere. 1955eko abenduaren 1ean, lanetik atera eta Montgomeryko (Alabama) autobus batean eserlekua aurkitu zuen **Rosa Parks**-ek. Garai hartako arraza-bereizkeriaren legeek afro-amerikarrak autobusaren atzeko aldean esertzera behartzen zituzten. Hala egin zuen Parksek. Gizon zuri bat autobusera igo zenean eta aurreko aldean eserlekurik ez zegoela ikusi zuenean, autobus-gidariak altxatzeko agindu zien Parksi eta beste hiru gizon afro-amerikarri. Parksek jarlekua uzteari uko egin zion eta atxilotu egin zuten. Atxilotetaren ondorioz Montgomeryko autobus sistemari boikota egin zitzaion.

Martin Luther King artzain baptista eskubide zibilen aldeko borrokaren buru eta sinbolo bihurtu zen. Rosa Parksen ausardiak eragindako Montgomery autobus-sistemaren boikota zuzendu zuen Kingek. Boikotak 381 egun iraun zuen, eta, ondorioz, Auzitegi Gorenak 1965ean adierazi zuen eserleku-bereizketa ez zela legezkoa. Montgomeryko boikotak argi erakutsi zuen arraza-bereizkeriari aurre egiteko indarkeriarik gabeko protesta jendetsuek arrakasta zutela.

Eskubide zibilen aldeko mugimenduaren loraldiarekin, bi lege garrantzitsu onartu ziren: **1964ko Eskubide Zibilen Legea** eta **1965eko Boto Eskubidearen Legea**. Lyndon B. Johnson presidenteak sinatu zituen bi lege horiek. Lehenengo legeak bizilagun guztiek enplegua lortzeko aukera-berdintasuna bermatzea zuen helburu; gainera, mugatu egin zituen ordura arte hautesleei egiten zitzaizkien alfabetatze-probak. Bigarren legeak, aipatutako alfabetatze probak guztiz debekatu eta zenbait boto-jurisdikziotan ikerle federalak egotea ahalbidetu zuen.

Martin Luther Kingek bazekien lege berriek ez zutela afro-amerikarren egoera gehiegi aldatuko. Horrek eragin zuen eskubide zibilen aldeko mugimenduaren esparrua zabaltzen hastea. Kingek giza eskubideen inguruko gaiak aurkeztu zituen AEBko **txiroen eta langile** klasearen **batasuna** lortzeko helburuarekin. Garaiko egoerari aurre egiteko eta gizartearen egitura zapaltzailea aldatzeko, amerikar **zuri eta beltzen** elizak deitu zituen. Kingen ustetan, arrazakeria, eta

ekonomia eta lan esplotazioak ziren AEBko gizartearen gaitz nagusiak. Martin Luther King 1968an erahil zuten.

Pentsamendu afro-amerikar feminista

Emakume afro-amerikarrek idatzitako lehen literatura-lanak 1859 inguruan argitaratu ziren. Lan horien artean, **Frances Ellen Watkins Harper**-ek idatzitako ipuinak dira esanguratsuenetakoak. 1959an argitaratutako “*Two Offers*” istorioa izan zen emakume afro-amerikar batek argitaraturako lehen ipuina. Urte berean argitaratu zen, izengabe, **Harriet E. Wilson**-ek idatzitako *Our Nig; or, Sketches from the Life of a Free Black* eleberria pertsona afro-amerikar batek argitaratutako lehena. 1861ean, **Harriet Jacobs**-ek *Incidents in the Life of a Slave Girl* autobiografia argitaratu zuen Linda Brent izengoitia erabiliz. Autobiografiak esklabo izandako emakume afro-amerikarrek sarritan sufritutako sexu-esplotazioa deskribatzen du.

Feminista afro-amerikarrek politika beltzaren barnean gertatzen ziren mugimenduei erreparatu zieten. Feministon lanetan, politika beltzaren ekintzak babesten edo zalantzan jartzen ziren. Emakume afro-amerikar aktibistek sarritan salatu zuten generoari loturiko zapalkuntza, baita aurreko belaunaldietan izandakoa ere. Hala ere, esan daiteke 70eko hamarkadaren amaierara arte ez zela guztiz garatu feminismo beltzaren korrante ideologiko kritikoa.

Hasieran, feminista afro-amerikar batzuk mugimendu **feminista zuriak** aurkeztutako gaietatik urruntzen saiatu ziren. Afro-amerikarrek jasandako **genero-bereizkeriari arrazakeria** ere gehitu behar zitzaiola salatu zuten. Feminista zuriek halakorik sufritzen ez zutela aldarrikatzen zuten feminista afro-amerikar askok. Horretaz gain, argudiatzen zuten arrazakeriak eragindako esklabotzak eta Jim Crow legediak emakume afro-amerikarren sexu-esplotazioa zutela oinarrian. Beraz, feminista zuriek ez bezala, afro-amerikarrek zapalkuntza hirukoitzaren aurka aritu beharra argi ikusi zuten: **arraza, genero** eta **klase** zapalkuntzaren aurka.

Hooksen pentsamendua

Arraza-, genero- eta klase-zapalkuntzek aginte-sistema bat sortu dutela dio hooksek. Gainera, argudiatzen du sistema horren **biktinek sistema betikotzen** laguntzen dutela. Aldaketa sozialak norberaren eta komunitatearen azterketa sakona eta kritikoa ekarri behar duela aldarrikatzen du aktibistak behin eta berriz. Ideia horrek desafiatzen ditu ekintzaile afro-amerikar asko, hooksen ustetan. Boteretzea bilatzen dutenek, sarritan, ez dute aztertu nahi izaten lortzen den botere horrek beste talde batzuk zapaltzen dituela.

Feminista zuriak ere kritikatzeko zituen hooksek. Azaldu zuen emakume gehienek (pribilegiadun zuriak batez ere) ez zituztela ikuspegi feminista iraultzaileak kontutan hartu. Feminista zuriak iraultza leundu egin zuten, oso, indarrean zegoen gizarte-egituraren botere ekonomikoa eskuratzen hasi zirenean (hooks, *“Future Feminist Movements”* 4). Horren adierazgarri da, hooksen iritziz, **pentsamendu feminista iraultzailea** eremu **akademikoan** hain biziki onartua eta aztertua izatea. Zoritxarrez, giro horretan landutako teoria feministak ez du herritar gehiengoarenganako bidea egin.

Pentsamendu eta pragmatika feminista akademiatik **kalera** eraman behar direla defendatzen du hooksek; hau da, aldarrikatzen du teoria eta praktika feminista eguneroko bizimodura itzuli behar dela. Agian, horrexek oztopatu du idazlearen iritziz, biztanleriaren gehiengo mugimendu feministara hurbiltzea. Ondorioz, antisexista izateko zer egin ez dakiten asko feminismotik urrun geratu dira.

1983an hainbat urtez irakasten eta idazten egon ondoren, doktoretza-titulua lortu zuen bell hooksek Toni Morrison idazlearen gaineko tesiarekin. Unitate honetan irakurriko dugu Morrisonen lana, eta hark idatzitako hiru eleberrien gaineko **informazio gehigarriak** lagunduko du pasarteak eta irakurketa gidatua lantzen. Gomendagarriena eleberriak osotasunean irakurtzeak da. *Love (Maitasuna)*, *Beloved (Maitea)* eta *Sula*-ri buruzko lerro batzuk datoz segidan eleberrien kontraletan deskribatu bezala:

Maitasuna

“Toni Morrison Nobel saridunaren eleberri berri liluragarria grinaren eta gorrotoaren; boterearen eta gaiztakeriaren; kolorearen eta klasearen sinfonia da –Faulknerren estilokoa. Eleberrian kostaldeko herrialde batean bizi diren emakume afro-amerikarren hiru belaunaldi biltzen dira.

Bizirik zegoenean, Bill Cosey-k emakume askoren maitasunaz gozatu zuen; emakume horiek Coseyren hobespena lortzeko ia edozer egiteko prest zeuden. Coseyk emakume haiengan duen indarra are indartsuagoa izan daiteke hil ondoren. Emaztea, alaba, biloba, langilea, maitalea... Morrison-en protagonistek Cosey-ren oroimenaren eta ondasunen erreklamazio bortitza egiteko edozertaz baliatuko dira,, azpijokoekin hasi eta erabateko bortizkeriara iritsi arte. Morrisonek lan maltzurra, dibertigarria, erotikoa eta hunkigarria sortu du.” (2005)

Maitea

“Ama bat, Sethe alaba hiltzen duen esklaboa da etorkizun lazgarritik salbatzeko helburuarekin eta baita bizi duen uneko duintasun-falta gelditzeko ere. Alaba bat: Denver-ek, jaiotzatik odolarekin nahastutako esneaz elikatu den neskatoak, apurka-apurka, maitasun handiegiaren ondorioz errealitatearekin lotura galtzen du. Eskarmentu bat: inoren minaren kontrako arma bakarra da krimena, delituaren aurrean aitzakia bakarra da maitasuna, eta heriotza da esklabotzara kondenaturiko bizitzaren aurrean salbazio bakarra. oinaze eta maitasun ikaragarriarekin eraikitako eleberri bikain honi esker 1988an Pulitzer Saria irabazi zuen 1993ko Literaturako Nobel Saridunak.” (2004)

IRAKURKETA GIDATUA

“Sula eta Nel-en istorioa da hau, auzo afro-amerikar batean hazi, eta amets eta itxaropenak partekatzen dituzten bi neskarena. Familia behartsuetako alabak dira biak azkarrak eta jakinguraz beteak. Baina denbora badoa, eta Nel ezkontzen denean, Sulak auzo txiroa atzean uzten du unibertsitatera joateko eta herrialde osoan zehar bidaiatzeko. Hamar urte beranduago, Sula itzuli egiten da

eta nahi gabe suntsitzen ditu Nelen familia eta zoriontasuna. Hortik aurrera, auzoko pertsonaia xelebreek sorgin gaiztotzat izango dute Sula.

AEBko gerren artean kokatzen da istorioa. Auzo afro-amerikar txiro batean emakumeen boterea erakusten duen mirarizko argazkia da eleberria. Emakumeak dira nagusi ahozko tradizioaren gordailu: erregina, ama eta sorgina". (2001)

BIBLIOGRAFIA

1. ALLEN, Paula Gunn: "A Funny Thing Happened on My Way to Press", in *Frontiers: A Journal of Women Studies*, 23. liburukia, 2. zk., 3.–6. or., 2002.
2. ---: "A Stranger in my Own Life: Alienation in Native American Prose and Poetry I", in *Newsletter of the Association for Study of American Indian Literatures*, 3 liburukia, 1. zk., 1.–10, or., 1979.
3. ---: "A Stranger in my Own Life: Alienation in Native American Prose and Poetry: II", in *Newsletter of the Association for Study of American Indian Literatures*, 3. liburukia,, 2. zk., 16.–23. or., 1979.
4. ---: "The Sacred Hoop: A Contemporary Indian Perspective on American Indian Literature", in *CrossCurrents*, 26. liburukia, 2. zk., 144–163 or., 1976.
5. ALLEN, Paula Gunn, et al: "What I Do When I Write...", in *The Women's Review of Books*, 6. liburukia, 10/11. zk., 23–29 or., 1989.
6. ANTJUSTEGI-ETXARTE ARANAGA, Maialen: *La Frontera, Borders and Transborders*, doktore tesia, EHU, 2015.
7. ANZÁLDUA, Gloria: *Borderlands/La Frontera. The New Mestiza*, Aunt Lute Books, 2007.
8. CAÑERO, Julio: *Literatura chicana: La realidad colonial chicana a través de la narrativa de Rudolfo Anaya*, Los libros de la Catarata, 2017.
9. CASTILLO, Susan Perez: "The Construction of Gender and Ethnicity in the Texts of Leslie Silko and Louise Erdrich", in *The Yearbook of English Studies*, 24. liburukia, 228–236 or., 1994.
10. CHRISTIAN, Barbara T: "Layered Rhythms: Virginia Woolf and Toni Morrison", in *Modern Fiction Studies*, 39. liburukia, 3/4. zk., 483–500 or., 1993.
11. CISNEROS, Sandra: *Caramelo*, Editorial Seix Barral, 2003.
12. ---: *House on Mango Street*, Vintage Contemporaries Edition, 1991.
13. DE BICHARA, Donna Kabalen: "Identidad y la literatura chicana: dos obras de Sandra Cisneros", in *Actas del XV Congreso de la Asociación Internacional de Hispanistas "Las dos orillas"*, Monterrey, México del 19 al 24 de julio de 2004. 2007.
14. DILG, Mary A: "Why I Am a Multiculturalist: The Power of Stories Told and Untold", in *The English Journal*, 86. liburukia, 6. zk., 64–69 or., 1997.
15. ERDRICH, Louise: *Love Medicine*, HarperPerennial, 2005.

16. ---: *Plaga de Palomas*, Ediciones Siruela, 2010.
17. FRÍAS, María, et al: "An Interview with Toni Morrison, and a Commentary about her Work", in *Atlantis*, 16. liburukia, 1/2. zk., 273–283 or., 1994.
18. GUTIÉRREZ, Salvado; Serrano, Joaquín & Hernández, Jesús: *Literatura Universal*, Anaya, 2015.
19. HOEVELER, Diane Long: "Text and Context: Teaching Native American Literature", in *The English Journal*, 77. liburukia, 5. zk., 20–24 or, 1988.
20. HOOKS, bell: *Feminism is for everybody. Passionate Politics*, Pluto Press, 2000.
21. ---: "Choosing the Margin as a Space of Radical Openness", in *Framework: The Journal of Cinema and Media*, 36. liburukia, 15–23 or, 1989.
22. ---: "Feminism and Militarism: A Comment", in *Women's Studies Quarterly*, 23. liburukia, 3/4. zk., 58–64 or., 1995.
23. ---: "Future Feminist Movements", in *Off Our Backs*, 20. liburukia, 2. zk., 9–9 or., 1990.
24. ---: "Talking Back", in *Discourse*, 8. liburukia, 123–128 or., 1986.
25. JALATA, Asafa: "Revisiting the Black Struggle: Lessons for the 21st Century", in *Journal of Black Studies*, 33. liburukia, 1. zk., 86–116 or., 2002.
26. JONSSON, Carla: "La literatura chicana bajo un enfoque didáctico–Cultura e interculturalidad", in *Moderna språk*, 102.1 liburukia, 78–89 or., 2007.
27. LANSER, Susan Sniader: "Unspeakable Voice: Toni Morrison's Postmodern Authority." in *Fictions of Authority: Women Writers and Narrative Voice*, Cornell University Press, Ithaca; London, 120–138 or., 1992.
28. LEITCH, Vincent B, ed: *The Norton Anthology of Theory and Criticism*, New York: W.W. Norton & Company, Inc., 2001.
29. MORRISON: Toni. *Beloved*, Vintage, 2004.
30. ---: *Love*, Vintage, 2005.
31. ---: *Sula*, Plaza & Janés editores, 2001.
32. ---: "Black Matter(s)", *Grand Street*, 40. zk., 204–225 or., 1991.
33. PÉREZ, Lorna L: "Haunting the House on Mango Street: Sandra Cisneros's Radical Revisions", in *CEA Critic*, 74. liburukia, 1. zk., 80–98 or., 2011.
34. PURDY, John, and Paula Gunn Allen: "And Then, Twenty Years Later...": A Conversation with Paula Gunn Allen", in *Studies in American Indian Literatures*, 9. liburukia, 3. zk., 5–16 or., 1997.

35. SATZ, Martha, and Sandra Cisneros: "Returning to One's House: An Interview with Sandra Cisneros", in *Southwest Review*, 82. liburukia, 2. zk., 166.–185. or., 1997.
36. SERGI, Jennifer: "Storytelling: Tradition and Preservation in Louise Erdrich's Tracks", in *World Literature Today*, 66. liburukia, 2. zk., 279–282 or., 1992.

WEBGRAFIA

37. "An Overview of Post- 1960 Native American Literature", Native American Writers [Interneten]. Eskuragarri: <http://nativeamericanlit.com/> [kontsulta: 2019ko abenduaren 16a].
38. Chicanas.com, 1996, "Who are Chicanas?" [Interneten]. Eskuragarri: <http://www.chicanas.com/about.htm>. [kontsulta: 2019ko abenduaren 16a].
39. Educando el Cambio, 2005, Movimiento Chicano. In: Brown unibertsitatea [Interneten]. Eskuragarri: https://www.brown.edu/Research/Coachella/chicano_es.html [kontsulta: 2019ko abenduaren 16a].
40. Farris, Phoebe, 2016, The Continuing Saga of Louise Erdrich. In: Magazine of Smithsonian's National Museum of the American Indian [Interneten]. Eskuragarri: <https://www.americanindianmagazine.org/story/continuing-saga-louise-erdrich> [kontsulta: 2019ko abenduaren 16a].
41. González, Carolina Meloni, 2009, "Bárbara y feminista: el feminismo de Gloria Anzaldúa". In: *El Salto* [Interneten]. Eskuragarri: <https://www.elsaltodiario.com/el-rumor-de-las-multitudes/barbara-y-mestiza-el-feminismo-de-gloria-anzaldua> [kontsulta: 2019ko abenduaren 16a].
42. Haque, Danielle, 2019, Sandra Cisneros. In: Oxford Bibliographies [Interneten]. Eskuragarri: <https://www.oxfordbibliographies.com/view/document/obo-9780199827251/obo-9780199827251-0156.xml#firstMatch> [kontsulta: 2019ko abenduaren 16a].
43. Lukens, Margo, 2017, Native American Literatura. In: Oxford Research Encyclopedias [Interneten]. Eskuragarri: <https://oxfordre.com/literature/view/10.1093/acrefore/9780190201098.001.0001/acrefore-9780190201098-e-584> [kontsulta: 2019ko abenduaren 16a].

44. Sitar, James (ed.), 2019, Louise Erdrich. In: Poetry Foundation [Interneten]. Eskuragarri: <https://www.poetryfoundation.org/poets/louise-erdrich> [kontsulta: 2019ko abenduraren 16a].
45. The Chicano Civil Rights Movement. In: Library of Congress [Interneten]. Eskuragarri. www.loc.gov/item/ihas.200197398/ [kontsulta: 2019ko abenduaren 16a]
46. Wishart, Devid J. (ed.), 2011, Assimilation Policy. In: Encyclopedia of the Great Plains [Interneten]. Eskuragarri: <http://plainshumanities.unl.edu/encyclopedia/doc/egp.na.008> [kontsulta: 2019ko abenduaren 16a].
47. World Directory of Minorities and Indigeneous Peoples, 2009, Native Americans. In: Minority Rights Group International [Interneten]. Eskuragarri: <http://minorityrights.org/minorities/native-americans/> [kontsulta: 2019ko abenduaren 16a].

